

Letren Fakultatea UPV/EHU  
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua  
2021-2022 ikasturtea  
Eslaviar Filologia (Ikasketa Klasikoak)

# ATZERRITARRENTZAKO ERRUSIERAREN IRAKASKUNTZA

*ERRUSIERA IKASLEEN KONTSONANTE FRIKATIBO  
ETA AFRIKATUEN AHOSKERAREN IRAKASKUNTZA*

ITSASO AMELIBIA ÁLVAREZ

TUTOREA: NEREA MADARIAGA PISANO

## LABURPENA

Lan honen helburua errusieraren fenomeno linguistiko bat aztertzea da, errusiera atzerriko hizkuntza edo RKI (*Русский язык Как Иностранный*) gisa irakasten duen irakasle baten ikuspuntutik. Lehendabizi fenomeno bat hautatuko dugu, kasu honetan, kontsonante afrikatu eta frikatibo aurre-sabaikariak eta hobietakoak ikasteko dagoen materiala aztertuko dugu, hau da, ш, щ, ж, с, з, ч eta ц ikasteko baliabideak. Hasiera-hasieratik pedagogian oinarritutako lan bat dela argi uztea beharrezkoa dela deritzogu, eta ez fonetikako lan bat. Beraz, nahiz eta fonetika ere aipatzen den, lanaren helburua eta oinarria ikasleen zailtasunak eta zailtasun horiek gainditzeko eskuragarri dugun materiala aztertzea da.

Lehenengo atalean, behin argi dagoela aztertuko den elementua, lehendabizi errusieraren kontsonanteen lau ezaugarri azalduko ditugu: ahostuntasuna, ahoskabetasuna, biguntasuna eta gogortasuna; eta, horren ostean, kontsonante afrikatu eta frikatiboen azalpen teorikoa egingo dugu. Behin hori egin dugula, errusiera atzerriko hizkuntza gisa duten ikasleek izan ohi dituzten arazo edo zailtasunak aztertuko ditugu. Lanaren bigarren atala hobeto ulertzeko eta lehenengo atal hori argiagoa izan dadin, topatzen ditugun arazoak taula batean antolatuko ditugu.

Bigarren atalean, materialei erreparatuko diegu. Horretarako, bost eskuliburu orokor, hiru eskuliburu espezializatu eta bi bideo baliatuko ditugu. Material horiek ebaluatzeko orduan ш, щ, ж, с, з, ч eta ц ahoskatzen ikasteko ematen dituzten azalpenak eta ariketen erabilgarritasuna eta balioa aztertuko ditugu. Behin material guzti horiek aztertu ditugula, horien ebaluazioa egingo dugu RKI gisa duten ikasleen beharren ikuspuntutik, eta hori egiteko, atal bakoitzaren amaieran zailtasunen taula txertatuko dugu eskuliburu bakoitzean agertzen diren eta agertzen ez diren zailtasunak adierazteko.

Ondoren, ш, щ, ж, с, з, ч eta ц-ren ahoskeraren inguruko klase bat emateko proposamen bat eskainiko dugu, hau da, erabiliko genituzkeen material, ariketa eta azalpenen bilduma bat. Horretarako, aztertu ditugun eskuliburuetakoa ariketak erabiliko ditugu gehienbat. Behin hori egin dugula, lana egin eta gero ateratako ondorioak aurkeztuko ditugu.

Letren Fakultatea UPV/EHU  
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua  
2021-2022 ikasturtea  
Eslaviar Filologia (Ikasketa Klasikoak)

Azkenik, lanari amaiera emateko, txosten hau egiteko baliatutako iturri guztien zerrenda bat egingo dugu.

## EDUKI-AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>8</b>
<b>2. FENOMENO LINGUSTIKOAREN DESKRIBAPENA</b> .....	<b>10</b>
<b>2.1. Kontsonanteak</b> .....	<b>10</b>
<b>2.1.1. Kontsonante bikotekatuak</b> .....	10
<b>2.1.3. Bikotekatu gabeko kontsonanteak</b> .....	11
<b>2.1.4. Kontsonante ahostun eta ahoskabeak</b> .....	11
<b>2.2. Kontsonante frikatibo eta afrikatuen ahoskera</b> .....	<b>12</b>
<b>2.2.1. Ч</b> .....	12
<b>2.2.2. Ц</b> .....	13
<b>2.2.3. С eta З</b> .....	14
<b>2.2.5. Ш eta Ж</b> .....	14
<b>2.2.6. Щ</b> .....	15
<b>2.3. RKI ikasleek dituzten zailtasunak</b> .....	<b>15</b>
<b>2.3.1. Kontsonante ahostunak eta ahoskabeak</b> .....	17
<b>2.3.2. Kontsonante gogor eta bigunak</b> .....	18
<b>2.3.3. Ш, Ж, Щ, З, С, Ч eta Ц-ren ahoskeraren zailtasunak</b> .....	18
<b>3. ATAL PRAKTIKOA</b> .....	<b>21</b>
<b>3.1. Eskuliburu orokorrak</b> .....	<b>21</b>
<b>3.1.1. 5 Элементов</b> .....	21
<b>3.1.2. Дорога в Россию</b> .....	23
<b>3.1.3. Curso Completo de Lengua Rusa. Niveles Básico, Medio y Avanzado.</b> 25	
<b>3.1.4. Beste eskuliburu batzuk</b> .....	27
<b>3.2. Eskuliburu espezializatuak</b> .....	<b>30</b>
<b>3.2.1. Curso de fonética y entonación rusa para hispanohablantes</b> .....	30
<b>3.2.2. Звуки. Ритмика. Интонация</b> .....	32
<b>3.2.3. Фонетические игры и упражнения</b> .....	35
<b>3.3. Interneteko baliabideak</b> .....	<b>40</b>
<b>4. PROPOSAMENA</b> .....	<b>43</b>
<b>5. ONDORIOAK</b> .....	<b>51</b>
<b>6. BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>52</b>

### TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: Kontsonante bikotekatuak (egokituta) (Levine, 2018).....	10
Taula 2: Kontsonante ahostun eta ahoskabeak (egokituta) (Levine, 2018).....	11
Taula 3: Euskal fonema kontsonantikoak – Batua (Etxebarria Ayesta, 1991) 77. or.....	16
Taula 4: Euskal fonema kontsonantikoak - euskalki (egokituta) (Etxebarria Ayesta, 1991).....	16
Taula 5: Gaztelaniaren erregistro fonetikoa (Benítez Burraco, 2008).....	17
Taula 6: Errusieraren erregistro fonetikoa (Yanushevskaya, I., & Bunčić, D. 2015) ....	17
Taula 7: Zailtasunak (Antonova D. N., 1998).....	20
Taula 8: Eskuliburu orokorrak.....	29
Taula 9: Eskuliburu espezializatuak.....	40
Taula 10: sibilante likidoa lantzeko ariketa.....	47
Taula 11: Frikatiboen konbinaketak lantzeko ariketa.....	49
Taula 12: Frikatiboen konbinaketak lantzeko ariketa.....	50

### IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1: Kontsonanteen transliterazio fonologikoa (Yanushevskaya, & Bunčić. 2015, 222. or.).....	8
Irudia 2: Ahoskunearen ebakera-diagrama (Etxebarria Ayesta, 1991, 89. or.).....	9
Irudia 3: /tʃ/ (Klimova & Bitextina, 2011, 116. or.).....	12
Irudia 4: /ts/ (Klimova & Bitextina, 2011, 116. or.).....	13
Irudia 5: /sʲ/ eta /zʲ/ (Klimova & Bitextina, 2011, 116. or.).....	14
Irudia 6: /s/ eta /z/ (Klimova & Bitextina, 2011, 115. or.).....	14
Irudia 7: /ʃ/ eta /ʒ/ (Klimova & Bitextina, 2011, 116. or.).....	14
Irudia 8: /β/ (Klimova & Bitextina, 2011, 116. or.).....	15
Irudia 9: Fonetikako blokea A1 (Esmantova, 2008, 38. or.).....	22
Irudia 10: Fonetikako blokea A2 (Esmantova, 2011, 26. or.).....	22
Irudia 11: /s/ eta /z/-ren ahoskera (Antonova, Naxabina, Safronova, & Tolstix, 2010, 19. or.).....	23
Irudia 12: /ʃ/ eta /ʒ/-ren ahoskera lantzeko ariketak (Antonova, Naxabina, Safronova, & Tolstix, 2010, 27. or.).....	24
Irudia 13: kontsonante gogor eta bigunak lantzeko ariketak (Antonova, Naxabina, Safronova, & Tolstix, 2010, 43. or.).....	24
Irudia 14: Kontsonanteen deskripzioa (Drosdov Díez et al., 2005, 12. or.).....	25
Irudia 15: Kontsonante ahostun eta ahoskabeak (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 19. or.).....	26
Irudia 16: Kontsonanteen biguntasun-gogortasunaren azalpena (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 27. or.).....	26
Irudia 17: Ahoskera lantzeko ariketak (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 27. or.).....	26
Irudia 18: Kontsonante-konbinaketen ahoskera (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 28. or.).....	26
Irudia 19: <i>Поехали!</i> eskuliburuko ariketa (Cernixov & Cernixova, 2019, 7. or.).....	28
Irudia 20: /z/ eta /zj/ bereizteko ariketak (Korotkova & Petrovskaya, 2017, 102. or.).....	31
Irudia 21: /tʃ/ eta /tʃʲ/-ren ahoskera lantzeko ariketak (Korotkova & Petrovskaya, 2017, 157. or.).....	32
Irudia 22: Ц lantzeko ariketa (Odincova, 2004, 94. or.).....	33
Irudia 23: Ш eta ш lantzeko ariketa (Odincova, 2004, 87. or.).....	33
Irudia 24: ш, ж, ч', ш, ц lantzeko ariketa (Odincova, 2004, 106. or.).....	34
Irudia 25: Kontsonante ahostunak eta ahoskabeak lantzeko ariketa (Odincova, 2004, 109. or.).....	34
Irudia 26: Kontsonante-konbinaketen ahoskera (Odincova 2004, 128. or.).....	35
Irudia 27: Kontsonante ahostun eta ahoskabeen piramidea (Milovanova, 2000, 16. or.).....	36
Irudia 28: Kontsonante gogorak eta bigunak (Milovanova, 2000, 16. or.).....	36
Irudia 29: ж eta ш (Milovanova, 2000, 90. or.).....	37
Irudia 30: ж-ren ahoskera (Milovanova, 2000) 103. or. ....	38
Irudia 31: ца, ча, ща-ren ahoskera (Milovanova, 2000) 111. or. ....	38

Letren Fakultatea UPV/EHU  
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua  
2021-2022 ikasturtea  
Eslaviar Filologia (Ikasketa Klasikoak)

Irudia 32: ж-ren ahoskera (Orlova 2013) .....	40
Irudia 33: ж-ren ahoskera (Orlova 2013) .....	41
Irudia 34: ж-ren ahoskera (Orlova 2013) .....	41
Irudia 35: с ahoskatzeko kokapena (Vasilieva 2020).....	42
Irudia 36: ш ahoskatzeko kokapena (Vasilieva 2020).....	42
Irudia 37: Kontsonante ahostun eta ahoskabeak (Milovanova, 2000, 17. or.) .....	43
Irudia 38: Kontsonante gogorak eta bigunak (Milovanova, 2000, 17. or.).....	44
Irudia 39: Kontsonante bigunak eta gogorak (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 27. or.).....	44
Irudia 40: ч-ren ahoskeraren azalpena (Korotkova & Petrovskaya, 2017, 139. or.).....	44
Irudia 41: ч lantzeko ariketak (Odincova, 2011, 90. or.).....	45
Irudia 42: ц-ren ahoskeraren azalpena (Korotkova & Petrovskaya, 2017, 155. or.).....	46
Irudia 43: ц eta т lantzeko ariketa (Odincova, 2011, 96. or.).....	46
Irudia 44: ц eta т lantzeko ariketa (Korotkova & Petrovskaya, 2017, 158. or.) .....	46
Irudia 45: з lantzeko ariketa (Odincova, 2011, 50. or.).....	47
Irudia 46: ш eta ж-ren amaierako posizioa lantzeko ariketa (Milovanova, 2000, 90. or.) .....	48
Irudia 47: ш eta с desberdintzeko ariketa (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 56. or.) .....	48
Irudia 48: ж eta с desberdintzeko ariketa (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 57. or.) .....	48
Irudia 49: ш eta ш desberdintzeko ariketa (Antonova, Naxabina, Safronova, & Tolstix, 2010, 48. or.).....	48
Irudia 50: ш eta ш desberdintzeko ariketa (Odincova, 2011, 87. or.).....	49
Irudia 51: ш eta ш desberdintzeko ariketa (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 130. or.).....	49

## 1. SARRERA

Lan honetan transkripzio fonologikoa egitea erabaki dut transkripzio fonetikoaren egin beharrean, lan honetan aztertuko ditugun kontsonanteek ez dituztelako alofonorik, eta beraz, kasu honetan bokalen eta beste kontsonanteen alofonoak islatzea ez da beharrezkoa. Hortaz, transkripzio fonologikoa egiteko IPA (International Phonetic Alphabet) erabiltzea erabaki dut bi arrazoi nagusirengatik: lehendabizi, nahiz eta errusieraren kontsonante frikatibo eta afrikatuak ikasteko zailtasunen inguruko proiektua den, lana euskaraz egingo dudanez, zilegizkoa iruditu zait transkripzioa egitean IPA erabiltzea hizkuntza horretan ohikoena delako; bigarrenik, RKI ikasleek dituzten zailtasunak azaltzeko euskararen, gaztelaniaren eta errusieraren erregistro fonetikoak konparatuko ditut, eta errusieraren fonetika IPA estiloan idaztea, euskal eta gaztelararen fonetika estilo zirilikoan idaztea baino samurragoa da. Beraz, fenomeno linguistikoaren deskribapenarekin hasi baino lehen, hona hemen kontsonanteen transliterazio fonologikoa:

p	/ <sup>l</sup> palʲt͡si/	<i>pal'cy</i>	'fingers'	r	/ <sup>l</sup> rat/	<i>rad</i>	'(am etc.) glad'
pʲ	/ <sup>l</sup> pʲalʲt͡si/	<i>pjal'cy</i>	'embroidery hoop'	rʲ	/ <sup>l</sup> rʲat/	<i>rjad</i>	'row'
b	/ <sup>l</sup> bas/	<i>bas</i>	'bass'	s	/ <sup>l</sup> sat/	<i>sad</i>	'garden'
bʲ	/ <sup>l</sup> bʲasʲ/	<i>bjaz'</i>	'calico'	sʲ	/ <sup>l</sup> sʲatʲ/	<i>sjad'</i>	'sit' (imperative)
m	/ <sup>l</sup> mala/	<i>malo</i>	'little, not enough'	z	/ <sup>l</sup> zapax/	<i>zapax</i>	'smell' (noun)
mʲ	/ <sup>l</sup> mʲala/	<i>mjala</i>	'(she) crumpled'	zʲ	/ <sup>l</sup> zʲapkʲij/	<i>zjabkij</i>	'sensitive to cold'
f	/ <sup>l</sup> fota/	<i>foto</i>	'photo'	ʦ	/ <sup>l</sup> ʦsarʲ/	<i>car'</i>	'tzar'
fʲ	/ <sup>l</sup> fʲodar/	<i>Fëdor</i>	'Fëdor' (name)	ʧʲ	/ <sup>l</sup> ʧʲari/	<i>čary</i>	'charms'
v	/ <sup>l</sup> valʲik/	<i>valik</i>	'bolster'	ʃʲ	/ <sup>l</sup> ʃʲuka/	<i>ščuka</i>	'pike'
vʲ	/ <sup>l</sup> vʲalʲit/	<i>vjalit</i>	'(s/he) dry-cures'	ʃ	/ <sup>l</sup> ʃar/	<i>šar</i>	'ball'
t	/ <sup>l</sup> tapka/	<i>tapka</i>	'slipper'	ʒ	/ <sup>l</sup> ʒar/	<i>žar</i>	'heat'
tʲ	/ <sup>l</sup> tʲapka/	<i>tjapka</i>	'chopper' (tool)	j	/ <sup>l</sup> jama/	<i>jama</i>	'pit'
d	/ <sup>l</sup> dom/	<i>dom</i>	'house'	k	/ <sup>l</sup> kot/	<i>kot</i>	'tomcat'
dʲ	/ <sup>l</sup> dʲorn/	<i>dërn</i>	'turf'	kʲ	/ <sup>l</sup> tkʲot/	<i>tkët</i>	'(s/he) weaves'
n	/ <sup>l</sup> nos/	<i>nos</i>	'nose'	g	/ <sup>l</sup> got/	<i>god</i>	'year'
nʲ	/ <sup>l</sup> nʲos/	<i>nës</i>	'(he) carried'	gʲ	/ <sup>l</sup> gʲote/	<i>Gëte</i>	'Goethe'
l	/ <sup>l</sup> lot/	<i>lot</i>	'plummet'	x	/ <sup>l</sup> xunta/	<i>xunta</i>	'junta'
lʲ	/ <sup>l</sup> lʲot/	<i>lëd</i>	'ice'	xʲ	/ <sup>l</sup> xʲubner/	<i>Xjubner</i>	'Hübner' (name)


Irudia 1: Kontsonanteen transliterazio fonologikoa (Yanushevskaya, & Bunčić. 2015, 222. or.)

Aipatu beharra dago, liburu askotan transliterazio mota desberdinak erabiltzen dituztela, eta beraz, gehienetan IPA-ra moldatu behar izan ditut.

Goiko taulan dauden soinu bakoitza ahoaren leku batean sortzen da. Hona hemen ahoskunearen ebakera diagrama bat, Jose Manuel Etxebarria Ayestaren *Euskal Fonetika*



eta *Fonologia* (1991) liburutik hartutakoa. Irudi hau baliagarria izango da soinu bakoitza non sortzen den jakiteko, bai errusieraren kontsonante frikatibo eta afrikatuen deskribapenean, baita horren ostean euskararen eta gaztelaniaren kontsonante frikatibo eta afrikatuekin konparatzen ditugunean ere:



Irudia 2: Ahoskunearen ebakera-diagrama (Etxebarria Ayesta, 1991, 89. or).

## 2. FENOMENO LINGUSTIKOAREN DESKRIBAPENA

### 2.1. Kontsonanteak

*Russian Grammar* liburuan, J.S. Levinek (2018) kontsonanteen inguruko informazio baliagarria ematen du, eta atal honetan liburu hori izan da informazio iturri nagusia. Azalpenekin hasi aurretik argitu nahiko nuke transkripzioa egokitu behar izan dudala lan honetan zehar erabili dudan transkripzio motarekin bat egin dezan.

#### 2.1.1. Kontsonante bikotekatuak

Errusierak 20 kontsonante ditu, eta horietako 15 bikoteka antolatzen dira, bikote bakoitzean kontsonante gogor (ez-palatalizatu) bat eta bigun (palatalizatu) bat dago.

б /b/ – /bʲ/	д /d/ – /dʲ/	л /l/ – /lʲ/	п /p/ – /pʲ/	т /t/ – /tʲ/
в /v/ – /vʲ/	з /z/ – /zʲ/	м /m/ – /mʲ/	р /r/ – /rʲ/	ф /f/ – /fʲ/
г /g/ – /gʲ/	к /k/ – /kʲ/	н /n/ – /nʲ/	с /s/ – /sʲ/	х /x/ – /xʲ/

Taula 1: Kontsonante bikotekatuak (egokituta) (Levine, 2018, 8. or.)

Kontsonante biguna bere homologo gogorra ahoskatzen den modu berean ahoskatzen da, ezaugarri garrantzitsu batengatik izan ezik: kontsonantea mingainaren erdialdea ahosabairantz altxatuta dagoela ahoskatzen da, и bokalaren ahoskeran bezala. Ondorioz, kontsonante bigunak /i/ bokalaren antzeko ezaugarri gainezarria du. Kontsonante bigunek, transkripzioan, homologo gogorra bezala irudikatzen dira, eta, ondoren, “j” txiki bat gehitzen zaio, adibidez, /t/ biguna irudikatzeko /tʲ/ erabiltzen da. Gainera, garrantzitsua da gogoratzea kontsonante bigun bat soinu bat dela, ez bi. Arreta jarri behar zaio kontsonante leunen ahoskerari, ez da kontsonante gogor + /i/ ahoskatu behar, hau da, **тѣтя**, /'tʲotʲa/ ahoskatzen da, ez \*/tʲotʲia/.

Idazkeran kontsonante bera erabiltzen denez bai gogorra, baita biguna ere irudikatzeko, desberdintzeko atzetik duten letrari erreparatu beharko diogu, hau da, hauetako bokal

batek jarraitzen badu (**я е ё ю и**), orduan biguna izango da; eta hauetako bokal batek jarraitzen badu (**а э о у ы**), orduan gogorra izango da<sup>1</sup>.

### 2.1.3. Bikotekatu gabeko kontsonanteak

Aurreko atalean aipatutako kontsonantez gain, beste bost kontsonante daude, baina hauek ez dute homologo gogor eta bigunen parerik osatzen. Bi kontsonante beti izango dira bigunak: **ч** eta **ш**; eta hiru kontsonante beti izango dira gogorrak (aurrerago ikusiko ditugun salbuespen gutxi batzuekin): **щ**, **ж** eta **ц**.

Aipatu berri bezala, **ш**, **ж** eta **ц** kontsonanteek gogorrak izaten jarraitzen dute, baita serie biguneko bokalen atzetik doazenean ere. Izan ere, kontsonante hauen atzetik doazenean, serie biguneko bokal azentudunak (е, и, ё), serie gogorreko beren homologoak bezala interpretatu behar dira: **э, ы, о**.

Bikotekatu gabeko bi kontsonante elkartzen direnean bi gauza gertatu daitezke, **жч, сч** eta **зч** kontsonante taldeen kasuan kontsonante gogorrak kontsonante bigunarekin asimilatzen dira **ш**' luze eta bigun bat sortuz: *считать* hitza, esate baterako, /ʃːiˈtati/ ahoskatzen da; **жж, зж** kontsonanteen kasuan **ж** luze eta bigun bat sortzen da, adibidez, *жжение* hitza /ˈʒːjɛnʲijɛ/ ahoskatzen da.

### 2.1.4. Kontsonante ahostun eta ahoskabeak

Kontsonante ahostun eta ahoskabez osatutako sei bikote daude:

<i>Kontsonante ahostunak</i>	<i>б</i> /b/	<i>в</i> /v/	<i>г</i> /g/	<i>д</i> /d/	<i>ж</i> /ʒ/	<i>з</i> /z/
<i>Kontsonante ahoskabeak</i>	<i>п</i> /p/	<i>ф</i> /f/	<i>к</i> /k/	<i>т</i> /t/	<i>ш</i> /ʃ/	<i>с</i> /s/

Taula 2: Kontsonante ahostun eta ahoskabeak (egokituta) (Levine, 2018, 9. or.)

Bestelako kontsonanteek ez dute bikoterik: **л, р, м**, eta **н** ahostunak dira; eta **ц, х, ч**, eta **ш** ahoskabeak.

<sup>1</sup> Garrantzitsua da ikasleari argi uztea bokalak berez ez direla bigunak edo gogorrak, kontsonanteak, aldiz, bai. Bokalak aurreko kontsonantea nolakoa den erakusten duten grafiak dira.

Kontsonante ahostunak ahots-korden dardararekin ahoskatzen dira, eta ahoskabeak, berriz, ahots-korden bibraziorik gabe. Kontsonante ahostunen eta gorren aurkakotasunak hitzen esanahia bereiz dezake: *зуб* /'zup/ (hortza) eta *суп* /'sup/ (zopa).

Kontsonante parekatuak ahostunak izatetik ahoskabeak izatera alda daitezke, eta alderantziz, hitzean duten kokapenaren arabera:

- 1- Hitzen amaieran kontsonante ahostunak ahoskabeak izatera pasatzen dira, adibidez, *нож* [ʃ], *массаж* [ʃ].
- 2- Kontsonante ahoskabe bat ahostun bezala ahoskatzen da kontsonante ahostun baten aurretik dagoenean, eta alderantziz, adibidez, *дорожка* [ʃ], *серёжки* [ʃ], *французский* [s].

## 2.2. Kontsonante frikatibo eta afrikatuen ahoskera


Atal honetako informazio gehiena Antonova-ren *Фонетика и интонация* (1998) liburutik atera dut; informazioa beste edozein iturritik atera izanez gero (irudiak, esate baterako) hor bertan agertuko da iturria zitaturik.

Orain kontsonanteen eskema orokor bat egin dugula, eta lan honen laburpenean zehaztu dugun bezala, kontsonante afrikatu eta frikatibo hobikari eta aurre-sabaikarien ahoskeran murgilduko gara.

### 2.2.1. Ч

/tʃ/ kontsonante afrikatu biguna da, sabai-aurrekoa eta iragankorra. Ahoskatzerakoan mihiaren aurrealdeak arku bat osatzen du albeoloekin eta goiko hortzen oinarriarekin; aire-zurrustak arkua hausten du, eta arraildura batetik igarotzen da. Mihia aurreratuta dago eta ezpainak apur bat zabalduta eta irekita.

Arkua ahulduta dagoenean edo falta denean, akatsa ezabatzeko abiapuntua arku baten eraketa da, /t/ ahoskatzerakoan egiten den bezala. Soinu osagarri gisa, aurreko /t/ edo /t/ soinuak erabil daitezke, gelditze-elementuarekin /ʃ/ fusionatzerakoan, /tʃ/ kontsonante leuna osatzen duena arku luze batekin: *лётчик* /'lʲotʃik/, *переводчик* /pʲir'i'vodʃik/.




Irudia 3: /tʃ/ (Klimova & Bitextina, 2011, 116. or)

Palatalak ez diren bokaleekin gehiago entzuten da edo nabarmenagoa da palatalizazioa. *Чe* eta *чу* konbinazioa “normala” edo naturala da, hau da kontsonante palatalizatua eta aurreko bokala, baina *ча*, *чо* eta *чу* ahoskatzean arreta jarri behar zaio palatalizazioa ondo entzuteko, atzeko eta erdiko bokalekin konbinazioa ez delako hain “naturala”. Beraz, palatalizazioa zuzen egiteko *чя чѣ чю* ahoskatu behar da: *учу* /u'tʃu/, *зачѐм* /za'tʃot/, *часто* /'tʃasto/.

Zailtasun gehien sortzen dira /tʃ/ hitzaren amaieran eta kontsonante gogorren aurreko eta ondorengo posizioetan dagoenean: *москвич*, *врач*, *спичка*, *ручка*, *молчать*, *прочла*.

### 2.2.2. II

/tʃ/ kontsonantea afrikatu ahoskabe gogorra da, hobikaria eta unifokala. Artikulazioaren abiapuntua mingainaren atzealdea ahosabai gogorrarekin topatzen denean da, goiko hortzen gainean hain zuzen (T formako lotura). Arkua poliki irekitzen da, eta horren ondorioz /s/ motako elementu frikatibo bat agertzen da. /t/ artikulazioarekin konparatuta, /tʃ/ barrualdera mugitzen da. Mingainaren atzealdea apur bat uzkurtuta dago eta forma laua du. /tʃ/ artikulazioaren egitura mingainkaritzat har daiteke.




Irudia 4: /tʃ/ (Klimova & Bitextina, 2011, 116. or.)

/tʃ/ eta /tʃʲ/ nahasten badira desberdintzeko ariketak gomendatzen dira. Mingainaren puntari arreta jarri behar zaio: /tʃ/ ahoskatzerakoan mingaina beheko hortzen oinarrian egon behar da


/tʃ/ eta [tʲ] nahastea oso ohikoa da hizkuntza askotan, horregatik, garrantzitsua da soinu horiek kokaleku guztietan menperatzea, baita zailenetan ere, besteak beste, hitzaren amaiera (*молодец*, *птица*), eta *и*, *е* bokalen aurrean, ortografiak ahoskera okerra laguntzen baitu.

### 2.2.3. C eta 3

/s/ eta /z/ kontsonante frikatibo hobikari unifokalak dira, hau da, mingainaren aurrealdea eta alboen artean hutsune bat sortzen da eta mingainaren punta beheko hortzen atzean kokatzen da; gainera, ahoskatzean, /s/ eta /z/ kontsonante sibilanteak luzeagoak dira eta aire fluxua hotzagoa izaten da.



Irudia 6: /s/ eta /z/  
(Klimova & Bitextina, 2011, 115. or)




Irudia 5: /sʲ/ eta /zʲ/  
(Klimova & Bitextina, 2011, 116. or)

Ahoskatzerakoan, mingainaren punta beheko hortzen atzealdearen kontra kokatzen da, goiko zatiak hutsune bat sortzen du goiko hortzekin, eta mingainaren alboek hortzak ukitzen dituzte. Bestalde, mingainak atzeruntz egiten du. /z/ ahoskatzerakoan ahotskordak gerturatu, tenkatu eta dar-dar egiten dute, /s/-ren kasuan hori ez da gertatzen. Beraz, /z/ ahostuna da, eta /s/ ahoskabea.

Ahoskatzerakoan unifokala izan beharrean, bifokala bada /ʃ:/ bezala, mingainaren puntari erreparatu behar zaio: /sʲ/ ahoskatzerakoan, punta /ʃ:/ fonemarekin baino pixka bat baxuago mantentzen da. Gainera, aire fluxua ere baxuago kokatzen da eta “beroago” dago, /s/-rekin konparatuta. Laburbilduz, mingainaren punta arinki jatsi egin behar da.

### 2.2.5. III eta Ж

Aurretik aipatu dugunez, /ʃ/ eta /ʒ/ txistukari frikatibo aurre-sabaikariak ez daude gogortasunbiguntasunaren arabera antolatuta eta beti dira gogorrak. Hizkuntzaren egituraren arabera kakuminalak dira, hau da, mihia goiko alboetara edo ahosabairantz altxatuta artikulatzen da eta puntaren beheko ertzarekin ukitzen du. Kokapen fonetiko gehienak /ʃ/ eta /ʒ/ ahoskatzeko kontrakoak dira. Praktikan, /ʃ/ eta /ʒ/ kontsonanteen asimilazio azkarrena /r/



Irudia 7: /ʃ/ eta /ʒ/ (Klimova & Bitextina, 2011, 116. or)

kontsonantearekin konbinatzerakoan ematen da (*пуа* /rʲʂa/, *упа* /ʲʂa/, *ржа* /rʲʂa/, *ржо* /rʲʂo/, *ору* /ʲorʲ/) artikulazio modu kakuminala duelako. Ahoskera zuzena lortzeko beste

konbinazio batzuk /m/, /b/ eta /p/ kontsonanteekin egindakoak dira, bai kontaktua izanda, baita kontakturik izan gabe: *обожазу* /obo'ʒgu/, *замиа* /zam'ʃa/.

Forma kakuminala ikasten ez bada /ʃ/ eta /ʒ/-ren ahoskera okerra ematen da kokagune fonetiko guztietan. Hori gertatzen bada, lehenik eta behin, hitz egin aurretik artikulazioa prestatzeko ariketak egitea gomendatzen da, eta artikulazioa zuzentzea ahoskera isolatuan eta soinu-konbinazioetan; horren ondoren, ahoskera praktikatu ahal izango du posizio fonetiko guztietan.

### 2.2.6. III


/ʃ:/ kontsonantea bifokal frikatibo ahoskabea da. Biguntasun-maila handia du ezaugarri. Mingainaren atzeko zatia igotzen da, eta aurreko zatia, berriz, jaitsi egiten da. Mingainak forma ganbila hartzen du. /ʃ:/ kontsonantearen ahoskera III baino luzexeagoa da.

/ʃ:/ ahoskatzeko kontsonantea palatalizatu behar da, hau da, bigundu. Horretarako *u* bokala (*ици, ица, ицу*) eta *tu* eta *du* silabak (*муци, думу*) erabili ditzakegu.

Ahoskatzeko zailtasunak daudenean /ʃ/ eta /ʃ:/-ren arteko trantsizioa praktikatzea komeni da. Hori egiteko mingaina aurrera mugitu, punta beheara eramane eta atzeko partea gora eramane behar da.

Ahoskatzerakoan bifokala izan beharrean, unifokala bada /si/ bezala, mingainaren puntari erreparatu behar zaio: /ʃ:/ ahoskatzerakoan, punta /si/-rekin baino pixka bat altuago mantentzen da. Gainera, aire fluxua altuago kokatzen da. Laburbilduz, mingainaren punta arinki altxatuta egin behar da.

Bestalde, *сч, зч, жч, стч* konbinazioak /ʃ:/ ahoskatzen dira: *счѣт* /'ʃ:ot/, *грузчик* /'gruʃ:ik/, *мужчина* /mu'ʃ:ina/, *жѣстче* /'ʒoʃ:ɛ/.



Irudia 8: /ʃ/ (Klimova & Bitextina, 2011, 116. or)

### 2.3. RKI ikasleek dituzten zailtasunak

*Russkij jazyk kak inostrannyj: fonetika* eskuliburuaren arabera (Klimova & Bitextina, 2011), soinuen artikulazioaren alorrean zailtasun gehien ematen dituzten aspektuak bi

dira: kontsonante ahostun eta ahoskabeak bereiztea, eta kontsonante gogor eta bigunak bereiztea.

Hizkuntza bakoitzak ezaugarri fonetiko propioak dituenez, RKI ikasleen erregistro fonetikoaren arabera izango dira errusiar fonetika ikasteko zailtasunak. Lan honetan bakarrik euskal hiztunek eta gaztelaniako hiztunek dituzten zailtasunak aipatuko ditugu. Gaztelaniaren erregistro fonetiko ere izango dugu kontuan lehenik eta behin euskaldunak bakarrik dituen ikasle talde bat izatea oso zaila delako, eta beraz gaztelararen erregistro fonetiko hartuko dugu kontuan euskarak baino erregistro fonetiko murriztuagoa baitu; gainera, euskal hiztun batzuek ere erregistro fonetiko murriztuagoa dute, esate baterako *tz*, *ts* eta *tx* eta *z*, *s* eta *x* desberdintzen ez dituztenak. Zailtasunak aztertu baino lehen errusierarekin konparatuta, gaztelaniak eta euskarak dituzten kontsonante frikatibo eta afrikatuak aztertuko ditugu, kasu honetan bakarrik kontsonante hobikari eta aurre-sabaikariak, lan honetan aztertzen ari garenak baitira. Horretarako, jarraian hiru taula dauzkagu. Lehenengoan errusieraren ingurukoa; bigarrean euskararen ingurukoa; eta azkenik, gaztelaniaren ingurukoa.

<i>EUS</i>	<i>BIZKAR- HOBIETAKO</i>		<i>GOI- HOBIETAKO</i>		<i>SABAI- AURREKO</i>	
	Ahosk.	Ahost.	Ahosk.	Ahost.	Ahosk.	Ahost.
<i>Frikatibo</i>	/s/ /ʃ/		/ʃ/		/ʃ/	
<i>Afrikatu</i>	/ts/		/ts/		/tʃ/	

Taula 3: Euskal fonema kontsonantikoak – Batua eta euskalki batzuk (Etxebarria Ayesta, 1991, 77. or.)

<i>EUS</i>	<i>BIZKAR- HOBIETAKO</i>		<i>SABAI- AURREKO</i>	
	Ahosk.	Ahost.	Ahosk.	Ahost.
<i>Frikatibo</i>	/s/		/ʃ/	
<i>Afrikatu</i>	/ts/		/tʃ/	

Taula 4: Euskal fonema kontsonantikoak – beste euskalki batzuk (egokituta) (Etxebarria Ayesta, 1991, 88. or.)



ES	HOBIKARIA		SABAI-AURREKO	
	Ahosk.	Ahost.	Ahosk.	Ahost.
<i>Frikatibo</i>	/s/ [s̺]			
<i>Afrikatu</i>			/tʃ/	

Taula 5: Gaztelaniaren erregistro fonologikoa (egokitua) (Benítez Burraco, 2008, 4. or.)

RU	HOBIKARIA		SABAI-AURREKO	
	Ahosk.	Ahost.	Ahosk.	Ahost.
<i>Frikatibo</i>	/s/ [s̺] <sup>2</sup>	/z/	/ʃ/	/ʒ/
	/sʲ/	/zʲ/	/ʃʲ/	
<i>Afrikatu</i>	/ts/		/tʃʲ/	

Taula 6: Errusieraren erregistro fonologikoa (Yanushevskaya, I., & Bunčić, D. 2015, 222. or.)

Ikus daitekenez, errusierak euskarak eta gaztelaniak baino erregistro fonetiko zabalagoa du. Euskarak ez ditu errusierak dituen kontsonante ahostunak, eta horrek /z/, /zʲ/ eta /ʒ/-ren ahoskera zailtzen du. Bestalde, kontsonanteen biguntasuna ez da euskararen ezaugarri bat, /ʃ/-ren kasuan salbu, eta ez ditu /sʲ/, /zʲ/, /tʃʲ/ bezalako soinuak. Gaztelarak euskarak baino erregistro fonetiko txikiagoa du kontsonante afrikatu eta frikatiboen kasuan, eta beraz, gaztelaraz hitzegiteak ez du kontsonante hauen ahoskeran laguntzen. Ipar Euskal Herriko euskaldunek, bestalde, frantsesaren eraginez, baliteke /ʒ/ ondo ahoskatzea, “j” frantsesa ahostuna delako.

### 2.3.1. Kontsonante ahostunak eta ahoskabeak

Ahostasunik ez izatea ezaugarri fonologikoa da, eta errusieraren kasuan kontsonanteen artikulazioan dauden desbideratzeek komunikazioa haustea eragiten dute.

<sup>2</sup> Gaztelaniaz eta errusieraz, adibidez, serie bakarra dago, horregatik fonema /s/ izango da. Gero alofonoak egongo dira. Baina euskaraz apikala eta laminala ez dira alofonoak, fonemak baizik. Beraz, konparaketa egiteko, eta argi uzteko gaztelaniazkoa eta errusierazkoa ez direla fonetikoki berdinak (nahiz eta fonologikoki bai), ondoan soinuak daude, sibilanteen kasuan. Hau da: gaztelaniaz /s/ [s̺], errusieraz /s/ [s̺] eta euskaraz fonemak /s/ eta /s̺/.

Kontsonante ahostun errusiarren berezitasuna da soinuaren artikulazio osoan zehar ahotskordetako bibrazioa dagoela. /s/ eta /z/-ren kasuan, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere, /s/ frikatibo ahoskabea besterik ez dugu, eta euskararen kasuan /s̺/ badugu, /z/-ren antzekoa baina hori ere ahoskabea. Gainera, errusierako /s/-a ez da euskarak eta gaztelaniak duten /s/-aren berdina, baizik eta euskarak duen /s̺/ frikatibo ahoskabetik gertuago dagoen soinu bat da. Errusieraz bi kontsonante hauek nola ahoskatzen diren irakasterakoan, errusierazko “c” euskarako edo gaztelaniako “s”-ren baliokide gisa irakasten da, eta “з” euskarazko /z̺/ -ren baliokide ahostun gisa. Baina, errealitatean, bai “c” bai “з” euskarako /s̺/-tik gertuago daude, bata ahoskabea eta bestea ahostuna.

Kontsonante ahostun eta ahoskabeak ez desberdintzeak sortzen dituen arazoen beste adibide bat /ʃ/ eta /z/ ez desberdintzea da: *жили* /z/ esatea *шили* /ʃ/ esan ordeaz, eta alderantziz. Gainera, gorago aipatu dugunaren arabera, euskaraz ez ditugu bi soinu hauek, eta daukagun frikatibo gertuena /ʃ/ da, beraz baliteke /ʃ/или ahoskatzea. Gertatu daitekeen beste gauza bat da /ʃ/ despalatalizatzen saiatzea eta /ʃ/ ahoskatzen lortzea baina /z/ ez.

### 2.3.2. Kontsonante gogor eta bigunak

Lehen aipatu dugun bezala gogortasuna eta biguntasuna ezaugarri fonologikoak dira errusieraz.

Artikulazioaren ikuspegitik, kontsonante bigun parekatuak palatalizatu egiten dira, hau da, eratzen direnean, artikulazio nagusiari beste artikulazio gehigarri bat gehitzen zaio: mingainaren aurreko erdia ahosabai gogorreraino igotzen da.

Zailtasunak gure kasuan izango dira, batez ere, kontsonante gehienak ez ditugula eta, orokorrean, gogortasun eta biguntasunaren artean ez dugula desberdinketarik egiten. Gainera, aldea dago baita gaztelania bakarrik edo euskaraz ere hitz egiten dutenen artean, inbentario fonologiko aberatsagoa duelako euskarak. Ohiko akats bat da, esate baterako, /ʃ/ eta /z/ kontsonante gogorrek bigun ahoskatzea: *жар* eta *машина*, adibidez, /ʃ/-ren eraginaren ondorioz.

### 2.3.3. Ш, Ж, Ш, З, С, Ч eta Ц-ren ahoskeraren zailtasunak

Atal honetan hiztun euskaldunek ш, ж, ш, з, с, ч eta ц ahoskatzerakoan dituzten zailtasunak laburbilduko ditugu. Horretarako, taula batean antolatu ditugu zailtasun

hauek. Bestalde, hurrengo atalean materialak aztertuko ditugu, eta behin hori egin dugula, taula honetako zailtasunei aurre egiteko erabilgarriak diren edo ez ikusiko dugu.

<p>ц /ts/</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontsonante bigundua ahoskatzea: /ts̄/ eta /t̄/ nahastuz, bereziki hitzaren amaieran kokatuta dagoenean (<i>чита/ts̄/, молоде/t̄/</i>, ahoskatzea <i>чита/t̄/, молоде/t̄/</i> ahoskatu ordez); eta и, е idatzi eta gero /i/ ahoskatzea /i/ ahoskatu beharrean (<i>лек/t̄/ия, меду/t̄/ина</i> ahoskatzea <i>лек/ts̄i/я, меду/ts̄i/на</i> ahoskatu beharrean)</li> </ul>
<p>ш /ʃ/ щ /ʃː/</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>/ʃ/ eta /ʃː/-ren arteko desberdintasuna ez jakitea eta biak /ʃː/ ahoskatzea. Adibidez, <i>укра/ʃː/ать</i> “domatu” esan nahi du eta <i>укра/ʃ/ать</i> “araindu”. Arazoa da biak /ʃː/ ahoskatzen badira, bietan <i>укра/ʃː/ать</i> “domatu” esango dugula.</li> </ul>
<p>ч' /tʃ̄/</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>/tʃ̄/ afrikatu bifokala gogorra edo behar bezain biguna ez ahoskatzea. /ts̄/ eta /t̄/ nahastuta. Hau da gure kasuan gehien egiten den akatsa, batez ere euskara gutxi dakitenek edo euskararen afrikatuen desberdinketa egiten ez dituzten hiztunek. Euskalki batzuetan ez da <i>tz ts</i> eta <i>tx</i>-ren arteko desberdinketa egiten, eta hiztun horiek dira zailtasun gehien izango dituztenak.</li> </ul>
<p>ш /ʃ/ ж /ʒ/</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiztun euskaldun eta gaztelaniadunek egiten duten akats ohikoena ш eta ж /s/ ahoskatzea da, esate baterako <i>шар /s/ar</i> ahoskatzea /ʃ/ar ahoskatu beharrean edo <i>желтый /s/елтый</i> ahoskatzea /ʒ/елтый-ren ordez.</li> <li>Zailtasun horretaz gain /ʃ/ eta /ʒ/ ahoskatzeko zailagoak dira hitzaren amaieran: <i>спишь, ешь</i>.</li> </ul>
<p>Frikatibo, afrikatu eta txistuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hitz berean edo segidan dauden silabetan frikatibo desberdinen konbinazioa gertatzen denean: <i>женщина, общежитие, живший</i>, (/s/ eta /z/-rekin ere) <i>суржик, сажать</i>... Guk ez dauzkagun frikatibo sibilante desberdinak konbinatzen direnean, hitz batean edo bata bestearengatik gertu, arazoak izaten ditugu. <i>Сижу</i> ahoskatzerakoan adibidez, <i>c</i>-tik <i>ж</i>-rako trantsizioa zaila izaten da, nahiz eta <i>c</i> euskaraz daukagun. Beste adibide bat, eta ahoskatzeko bereziki zaila den hitz bat <i>общежитие</i> da: alde batetik, guk ez dugun <i>ж</i> duelako eta <i>щ</i>-tik oso gertu, eta nahiz eta bigarrena gure erregistro fonetikoan izan (<i>x</i> euskaraz),</li> </ul>

	<p>lehenengoa ahostuna eta gogorra da, eta bigarrena ahoskabea eta biguna. Hau da, haien artean ez dute ez ahostuntasun ez biguntasun ezaugarria komunean eta gainera bietako bat arrotza da guretzat.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Hasierako posizio “silabikoa”, hau da, sibilante likidoa deritzoguna. Hori aztertu ditugun fonema guztiekin gertatzen da: <i>жзучий, шмонать, чтение, цвет, спелый, зрение</i>, eta abar. Euskaraz eta gaztelaniaz ez dago inolako frikatiborik kokapen horretan eta horren ondorioz, kontsonantearen aurretik “e” bat jartzeko ohitura daukagu (ingelesez adibidez “estop” edo “espik”).</li></ul>
--	--

Taula 7: Zailtasunak

### 3. ATAL PRAKTIKOA

Lan honen atal praktikoan, laburpenean azaldu bezala, RKI ikasleentzako dauden eta eskuragarri ditugun materialetako azalpen gramatikalak eta ariketak aztertuko ditugu, eta aurreko atalean ikusi ditugun zailtasunak kontuan hartuta, material horien egokitasuna edo egokitasun falta ebaluatuko dugu. Atal hau hiru azpiataletan banatzen da, material moten arabera antolatutakoak: eskuliburu orokorrak, eskuliburu espezializatuak eta Interneteko baliabideak.

MCER mailen arabera sailkatuta dauden eskuliburu orokorretan ez da fonetika lantzen. Ingelesez dauden eskuliburuetan, beti sartzen dute ahoskerari buruzko ataltxo bat gai bakoitzean, eta beraz, ez zaio atal oso bat ematen. Gehienez jota, A1 liburuetakoa hasierako orrialdeetan zirilikoa nola irakurtzen den azaltzen dute ikasleek nola irakurri jakin dezaten. RKI-ko tradizioan, fonetika eskuliburu orokorretatik kanpo lantzen da, behin ikasleak A2-B1 maila duenean. Ez da “sistematikoki” edo gehienetan ez dela fonetika lantzen, aurrerago ikusiko ditugun adibideetan bezala, eskuliburu batzuetan bada fonetikari buruzko zerbait irakasgai bakoitzaren hasieran.<sup>3</sup>

#### 3.1. Eskuliburu orokorrak

Eskuliburu orokorrek gramatika lantzen dute batez ere, baina batzuetan eskuliburuen hasieran fonetika pixka bat lantzen da, horregatik, lehendabizi eskuliburu mota hauetakoa batzuk aztertuko ditugu.

##### 3.1.1. 5 Элементов

*Русский язык: 5 элементов* liburua batez ere gramatikan eta hiztegian zentratzen da, eta fonetika oso gaineratik azaltzen du, ikaslea gutxi-gorabehera irakurtzeko gai izateko moduan, baina ñabarduretan sartu gabe. Esate baterako, liburuaren aurkibidean “Fonetikarako sarrera ikastaroa” izeneko atal bat agertzen da. 15 orrialdeko ikastaroa da:

---

<sup>3</sup> MCER mailak Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua izendatzeko erabiltzen diren gaztelaniazko siglak dira. Hizkuntza batean ulermen maila eta ahozko eta idatzizko eta adierazpen-maila neurtzeko estandarra da. Europako Kontseiluaren hizkuntza-politikaren proiektuaren parte da, eta Europako testuinguruan hizkuntzak ikasteko eta irakasteko jarraibideak bateratu ditu. (Europako Kontseilua, 2001)

lehenengo zatian alfabetoa agertzen da, letra bakoitzaren ahoskerarekin batera, ondorengo orrialdeetan letren ahoskera praktikan jartzen du eta gero intonaziora pasatzen da. Horren ostean bokal gogor eta bigunak bereizteko ariketa pare bat daude, baita kontsonante ahostun eta ahoskabeak bereizteko ere. Orain arte aipatutako guztia oso labur azaltzen da eta ez da nahikoa RKI ikasleak ahoskera behar bezala ikasteko.

Bestalde, ikasgai bakoitzaren hasieran bertan izango diren fonetikako zailtasunak daude, atal horri “fonetikako bloke” izena jarri diote:

## Урок 2

---

**Н, М**

**Н** — на-ня-нья, нэ-не-нье, ны-ни-ньи, но-нё-нёе, ну-ню-нюю;  
**нуль** — меню — Нью-Йорк,  
**е'** = [э]: Не[э]лли — Невá, Интерне[э]т — нет — инъекция,  
**но́мер** — ма́нёр, негати́вный;  
**А́нна** — А́ня, Та́тьяна — Та́ня, ва́нна — Ва́ня  
**ОН, ОНО́, ОНА́, ОНИ́**

**М** — ма-мя-мья, мэ-ме-мье, Мы-ми-мии, мо-мё-мье, му-мю-мью;  
**Мы́** — ми́ни, ма́ма — се́мья, мэ́р — ме́ню, му́мия — Ка́мю, му́ндштук —  
**Мю́нхен, Ме́ртвое мо́ре, мэ́тр** — ме́тр,  
**Ме́ксика, ми́ксту́ра, ма́ссаж, мо́ноло́г, ме́ридиáн, мэ́рамор**

Irudia 9: Fonetikako blokea A1 (Esmantova, 2008, 38. or.)

Ariketa eta azalpen horiek ondo daude sarrera moduan, baina ez dira ariketa moduan agertzen, zerrenda moduan besterik ez, eta askotan ez dira lantzen.

A2 eskuliburuan ez dago fonetikara bideratutako atalik, baina liburu honetan ere, A1 liburuan bezala, “fonetikako bloke” bat agertzen da ikasgai bakoitzaren hasieran:

## Урок 21

---

**21.1** [ж]: жанр, жандáрм, Же́нёва, Дон Жуáн, Жа́нна д'Арк, «жигули́», жи́раф.  
Же́на Жи́ля жи́ла в Же́нёве.  
[ш]: э́таж, но́ж, гара́ж, персо́наж;  
[ш']': борщ, о́воц, това́рищ, по́мощь, пла́щ,  
пло́щадь.

-ч, -ж, -ш, -щ — он (m.)  
-чь, -жь, -шь, -щь — она (f.)

Irudia 10: Fonetikako blokea A2 (Esmantova, 2011, 26. or.)

B1 eskuliburuan jada ez dira “fonetikako bloke” horiek edo fonetikarekin zerikusia duten beste ariketarik agertzen.

Laburbilduz, esan genezake fonetikari sarrera egiten diola liburu honek, baina liburu honekin ezin daiteke errusiera behar bezala ahoskatzen ikasi, ez dituelako horretarako ariketa nahikoak.

### 3.1.2. *Дорога в Россию*

*Дорога в Россию* A1 eskuliburuan fonetika lantzen da. Eskuliburuaren azalpenaren arabera, ahozko eta idatzizko komunikazioa lantzeko liburua da. Helburua komunikazioa denez, beste eskuliburu orokorrek baino gehiago lantzen du ahoskera. Gainera, lehenengo ikasgaietan hizki bakoitzaren ahoskera lantzen du: soinu bigunak eta gogorrak, eta hizki ahostun eta ahoskabeak bereizteko ariketak daude.

Lan honen aurreko atalean kontsonante afrikatu eta frikatiboak ikasteko zailtasunak aztertu ditugunean, ikusi dugu kontsonanteen ahostuntasuna, ahoskabetasuna, biguntasuna eta gogortasuna zailtasuna izaten direla euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleentzat, eta beraz, beharrezkoa da hizkuntzaren alderdi horiek lantzen dituen eskuliburu bat erabiltzea.

Bigarren ikasgaietan /s/ eta /z/ lantzen dira (beste batzuekin batera). Bien arteko desberdintasuna ikasteko, ariketak audioekin batera datoz.

[c] - [з]		
сма - зма	смо - змо	сму - зму
сна - зна	сно - зно	сну - зну
сва - зва	сво - зво	сву - зву
ста - зда	сто - здо	сту - зду
сла - зла	сло - зло	слу - злу
сра - зра	сро - зро	сру - зру

Irudia 11: /s/ eta /z/-ren ahoskera (Antonova, Naxabina, Safronova, & Tolstix, 2010, 19. or.)

Hirugarren ikasgaian /ʃ/ eta /ʒ/ lantzen dira. Aurrekoetan bezala, audioak daude ahoskeran dagoen desberdintasuna ikasi eta praktikatzeko. Gainera, /ʃ/ eta /ʒ/-ekin batera, /s/ eta /z/-rekiko desberdintasuna ere lantzen da.

<b>Шш [ш]</b>	ша	а - ша	аш	<b>Жж [ж]</b>	жа	а - жа - жба
	шо	о - шо	ош		жо	о - жо - жбо
	шу	у - шу	уш		жу	у - жу - жбу
	ше [шэ]	э - ше	еш		же [жэ]	э - же
	ши[шы]	ы - ши	иш		жи[жы]	ы - жи
	што - шта - шту - шка - шко				жда - жду - ждо - жды	

<b>[ш] - [ж]</b>			<b>Пишите</b>
ша - жа	шна - жна	шар - жар	
шо - жо	шно - жно	шор - жор	
шу - жу	шну - жну	шур - жур	
ше - же	кша - гжа	шер - жер	
ши - жи	кшу - гжу	шир - жир	
	кши - гжи		

*(Handwritten examples: ш ш, ша шо, шу ши)*

Irudia 12: /ʃ/ eta /ʒ/-ren ahoskera lantzeko ariketak (Antonova, Naxabina, Safronova, & Tolstix, 2010, 27. or.)

Laugarren ikasgaian /tʃ/ eta /ʃ:/ lantzen dira, eta /ʃ/ eta /s/ ere konparaketa egiten da. Gainera, ikasgai honetan kontsonante bigun eta gogorren inguruko azalpen labur bat ematen du, ariketa batzuekin batera.

<b>л [л]</b>	а	<b>л [л']</b>	я	ся - зя	ля - ря - зря
	о		ё	сё - зё	лё - рё - трё
	у		ю	сю - зю	лю - рю - дрю
	ы		и	си - зи	ли - ри - зри
	э		е	се - зе	ле - ре - дре
		<b>з [з']</b>	ь		

Irudia 13: kontsonante gogor eta bigunak lantzeko ariketak (Antonova, Naxabina, Safronova, & Tolstix, 2010, 43. or.)

Azkenik, ц lantzen da bosgarren ikasgaian, eta aurrekoan bezala, kontsonante bigun eta gogorak lantzen jarraitzen du, eta hurrengo ikasgaietan gehiago murgiltzen da gai horretan.



A2 liburuan, ordea, fonetika alde batera utzi eta gramatikan oinarritzen da. Hala ere, ikasgai batzuen hasieran (ez guztietan) fonetikako ataltxo bat egoten da, baina ahoskera baino, intonazioa lantzen du gehiago. Azkenik, B1.1 eta B1.2 liburuetan jada ez da fonetika lantzen.

Laburbilduz, *Дорога в Россию* eskuliburu orokorra izanda, A1 maila erabilgarria da fonetika lantzeko, beste eskuliburu batzuk ez bezala, ariketa asko dituelako fonetikara bideratuta. Egia da ez dagoela euskara eta gaztelera hitz egiten duten ikasleen zailtasunei bideratuta eta liburuak eskaintzen dituen ariketa asko ez direla erabilgarriak izango, baina balio dezaketen ariketak aukeratuz gero, aukera ona izan daiteke.

### ***3.1.3. Curso Completo de Lengua Rusa. Niveles Básico, Medio y Avanzado.***

Eskuliburuaren aurkezpenean azaltzen duenaren arabera, hiztun gaztelaniadunentzat bideratuta dago, eta hiztun horiek errusiera ikasterakoan izaten dituzten zailtasun fonetiko, gramatikal eta lexikoak kontuan hartuta sortu da. Gainera, aurkezpen horren amaieran jada aipatzen du fonetika lehenengo sei ikasgaietan landuko dela.

Hasieratik hizki bakoitzaren ahoskera azaltzen du eta gaztelarako soinuak erabiltzen ditu (frantsesa, ingelesa eta galiziera ere maila txikiagoan) erreferentzia puntu gisa. Horrekin batera, kontsonante bakoitzaren ebakera-gunea eta artikulazio mota adierazten dituzte, adibidez:

- с** — predorso-dental, fricativa, sorda, más silbante que la s castellana, se asemeja a la s en algunas regiones de Andalucía
- т** — dental, oclusiva, sorda, como la t española

Irudia 14: Kontsonanteen deskripzioa (Drosdov Díez et al., 2005, 12. or.)

Horri esker, RKI ikasleak erreferentzia puntu bat izango du errusieraren soinuak ahoskatzerakoan.

Bigarren ikasgaietan ahostuntasuna eta ahoskabetasuna ere azaltzen ditu, zer kontsonante dauden talde bakoitzean eta noiz alda daitezkeen ahostun izatetik ahoskabe izatera eta alderantziz, horrekin batera entzumen ariketak daude ezaugarri horiek lantzeko.

1. Las consonantes sordas *с т п к х ч ш щ ц ф*  
 tienen su pareja sonora *з д б г ж в*  
 De esta relación sorda-sonora derivan reglas de pronunciación muy importantes.

Irudia 15: Kontsonante ahostun eta ahoskabeak (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 19. or.)

Hirugarren ikasgaiari *ш, ж, щ, ч* eta *ц*-ren ahoskeraren inguruko azalpena ematen du, batez ere beste hizkiekin konbinatzerakoan dutenarena eta biguntasun-gogortasunaren ingurukoa. Gainera, zailtasunen atalean azaldu bezala, *ш, ж, щ, ч, ц, с* eta *з* kontsonanteak hitz berean agertzen direnean ahoskatzeko zaila egiten zaie RKI ikasle euskaldun eta gaztelaniadunei, eta ikasgai honetako ariketetan hori pixka bat lantzen da, hala ere ez da nahikoa:

1. Las consonantes *ж, ч, ш, щ* se llaman sibilantes y se dividen en:  
 Duras: *ж, ш*. Tras ellas: *и* se pronuncia como *ы*: *жил*  
*ё* se pronuncia como *о*: *шёлк*  
*ю* se pronuncia como *у*: *жюри*  
*е* se pronuncia como *э*: *шесть*  
 Blandas: *ч, щ*. Tras ellas: *а* se pronuncia como *я*: *чаща*  
*у* se pronuncia como *ю*: *чудо*  
*о* se pronuncia como *ё*: *чóпорно*

Irudia 16: Kontsonanteen biguntasun-gogortasunaren azalpena (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 27. or.)

6. *ж, з, с, ч*  
*железы*    *зажать*  
*залежи*    *сажать*

Irudia 17: Ahoskera lantzeko ariketak (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 27. or.)

Ikasgai honetan ere kontsonanteen konbinaketak zer soinu sortzen duten azaltzen da, esate baterako: *зж* eta *сж жж* ahoskatzen direla; *жч, сч* eta *зч ш* ahoskatzen direla eta *шш* eta *шш шш* ahoskatzen direla. Horren inguruko ariketa bat dago.

9. *зж, сч, сш, жч, сж, зч, зш*
- |                |                |                |
|----------------|----------------|----------------|
| <i>визжать</i> | <i>мужчина</i> | <i>сшить</i>   |
| <i>сжать</i>   | <i>счастье</i> | <i>нёсший</i>  |
| <i>сжечь</i>   | <i>грузчик</i> | <i>влезший</i> |

Irudia 18: Kontsonante-konbinaketen ahoskera (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 28. or.)

Ikasgaien lehenengo errebasoan orain arte azaldutakoaren laburpentxo bat egiten du. Hortik aurrera fonetika ez da gehiago lantzen.

Laburbilduz, eskuliburu honetan hiztun gaztelaniadunek izan ditzaketan zailtasunak lantzen dituztenez, beste batzuk baino zehatzagoa da, eta beraz, erabilgarriagoa.

### **3.1.4. Beste eskuliburu batzuk**

Atal honetan fonetika oso gutxi azaltzen edo lantzen duten eskuliburuetan aurki ditzakegun fonetika ariketak aipatuko ditut.

#### **Русский Язык. Ruso para hispanohablantes A1**

Eskuliburu honen hasieran errusieraren alfabetoa agertzen da, hizki bakoitzaren transkripzioarekin batera. Horrekin batera, entzun eta errepikatzeko ariketa batzuk daude, hizkien ahoskera praktikatzeko. Hala ere, ariketek ez dituzte azalpen teorikorik, eta beraz, ez dira guztiz baliagarriak beste batzuekin konparatuta, ematen duen azalpen bakarra ж, ш eta ц kontsonante gogorak direla, eta ч eta щ bigunak direla da. Bestalde, nahiz eta hiztun gaztelaniadunentzat bideratuta egon, izenburuak dioen bezala, hiztun horiek izan ditzaketan arazo ohikoei ez die erreparatzen, eta horren ordez, soinu guztiak berdin lantzen ditu.

#### ***Поехали! A1-A2***

Eskuliburu honen aurkibidean esaten duenaren arabera, lehenengo hamar ikasgaietan fonetika lantzen da. Ez dagoenez hiztun euskaldun eta gaztelaniadunen zailtasunei bideratuta, lantzen diren alderdi fonetiko asko ez dira gure interesekoak izango.

Lehenengo ikasgaietan hizki bakoitzaren soinua ikasteko hitz zerrenda batzuk daude, ariketa entzun eta errepikatzeko da. Zazpigarren orrialdean interesgarria izan daitekeen ariketa bat dago. Ariketa horretan hizki baten ahoskera entzun eta hiru hizkiren artean zein entzun duzun hautatu behar duzu. Ariketa horretan guretzat desberdintzeko zailak ez diren soinu asko agertzen dira, baina azkenekoa, adibidez, erabilgarria da, ж, ш, щ, ц eta ч desberdintzeko delako:



**ВЫБИРАЕМ БУКВЫ, КОТОРЫЕ СЛЫШИМ:**

1. м **к** т а о е мак кет
2. с у х вин рис рус х с н сир р в с
3. б п д л д п ф э ы э з г л б ы э п ф п г д ы д б
4. ё ю я й я ю ю ё й я й ё я ю ё ю я й й ё ю
5. ж ш ч ц щ ч ч щ ц ш щ ц ж ч ш ц щ ж ш ч щ

Irudia 19: *Поехали!* eskuliburuko ariketa (Cernixov & Cernixova, 2019, 7. or.)

Bestalde, ж, ш eta ц kontsonante gogorrek direla eta ч eta щ bigunak direla azaltzen du.

Bukatzeko, ж, ш, ч eta щ lantzeko ariketa pare bat dago.

Laburbilduz, nahiz eta eskuliburu honetan fonetika lantzen den, ez dagoenez hiztun euskaldun edo gaztelaniadunentzat prestatuta, oso ariketa gutxi izango zaizkigu baliagarriak.

	<b>РУССКИЙ ЯЗЫК: 5 ЭЛЕМЕНТОВ A1</b>	<b>ДОРОГА В РОССИЮ A1</b>	<b>CURSO COMPLETO DE LENGUA RUSA</b>	<b>РУССКИЙ ЯЗЫК. RUSO PARA HISPANO- HABLANTES A1</b>	<b>ПОЕХАЛИ!</b>
Alfabetoa + ahoskera	✓	X	✓	✓	✓
/tʃ/ afrikatu bifokala bigun ahoskatu behar dela, eta ez gogor	X	X	X	X	X
/ʃ/ eta /ʃi:/ desberdindu	X	✓	X	X	X

Letren Fakultatea UPV/EHU  
 Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua  
 2021-2022 ikasturtea  
 Eslaviar Filologia (Ikasketa Klasikoak)

behar dira eta ez dira biak /ʃ:/ bezala ahoskatu behar		III eta III bereizteko ariketak			
/ts/ fonema gogor ahoskatu behar da eta da /tʃ/- rekin nahastu behar	X	X	✓ II lantzeko ariketak (27. or.)	X	X
/ʃ/ eta /z/ zuzen ahoskatu behar dira eta ez /s/ bezala	X	✓	✓ (ariketatxo bat 56.or.)	X	X
/ʃ/ eta /z/ hitzaren amaieran	X	X	X	X	X
Frikatibo desberdinen konbinazioa	X	X	✓ (ariketatxo bat 57. or.)	X	X
Sibilante likidoa	X	X	X (aipatu baina ez landu)	X	X

Taula 8: Eskuliburu orokorrak

### **3.2. Eskuliburu espezializatuak**

Eskuliburu espezializatuak gai jakin bat sakon lantzen dute, eta kasu honetan fonetika lantzen duten eskuliburuak aztertuko ditugu. Eskuliburu mota hauetan ez dira soilik lan honetan zehar landu ditugun kontsonanteak lantzen, beraz, bertan agertzen den guztiguztia ez zaigu baliagarria izango, aldiz, beste asko, bai.

#### ***3.2.1. Curso de fonética y entonación rusa para hispanohablantes***

Liburu hau, nahiz eta izenburuan hiztun gaztelaniadunentzat eginda dagoela esan, ikasle txinatarrentzat egin zen, eta beraz, lantzen diren gauza batzuk ez zaizkie gure arazoei moldatuko. Hala ere, beste asko oso interesgarriak dira, eta horiei aurrerago erreparatuko diegu.

Ariketak aztertzen hasi baino lehen, aipatzekoa deritzot, ikasgai bakoitzaren hasieran, landuko diren hizkiak nola ahoskatzen diren azaltzen duela, adibidez: mingaina nola jarri, zer beste soinurekin nahas gaitezkeen eta zer ekidin behar dugun ahoskatzerakoan. Azalpena motza eta argia da, eta oso egokia da batez ere RKI ikasleak etxean audioak eskuragarri ez izatekotan ahoskera praktikatzeko errazagoa izan dadin.

Ш, ж, ш, ч, ц, с eta з 97. orrialdetik 153. orrialdera lantzen dira.

Lehendabizi c eta з lantzen ditu 7.ikasgaian. Lehendabizi ahoskeraren azalpena ematen du, hau da, nola ahoskatzen diren deskribatzen du. Gainera, bi kontsonanteak ez nahasteko ahostuntasuna kontuan hartu behar dela aipatzen du. Azalpenaren ostean entzun eta errepikatzeko ariketak daude, lehenengo soinua bakoitza alde batetik eta ondoren biak ariketa berean. Horren ostean, ikasleen ahoskera landu beharrean entzumena lantzen du eta ikasleek hitz zerrenda bat entzungo dute eta c edo з entzun duten esan beharko dute. Hurrengo ariketetan /s/, /z/, /sʲ/ eta /zʲ/ desberdintzeko ariketak daude.

### УПРАЖНЕНИЕ 8

Слушайте и повторяйте. Следите за произношением звука [з'].  
*Escuche y repita. Preste atención a la pronunciación del sonido [z'].*

- а) изи... изи... зи... – Зі́на, магази́н, зима́  
изи... изе... зе... – музе́й, зе́ркало, газе́та  
изи... изя... зя... – зять, взять, взял, взяли́  
изи... изю... зю... – изю́м
- б) Я возьму́ газе́ту. Мы возьме́м газе́ту.  
Ты возьме́шь газе́ту. Вы возьме́те газе́ту.  
Он/а возьме́т газе́ту. О́ни возьму́т газе́ту.

Irudia 20: /z/ eta /z'/ bereizteko ariketak (Korotkova & Petrovskaya, 2017, 102. or.)

Ш eta ж 115. orrialdetik aurrera lantzen dira, 8. ikasgaiari. Kontsonante hauek ez dira ahoskatzeko errazak eta beraz, oso lagungarria da hasieran ematen duten azalpena. Lehenengo mingainak izan behar duen kokapena azaltzen dute eta aurreko kontsonanteekin bezala, ahostuntasuna eta ahoskabetasuna kontuan hartzeko esaten dute bi kontsonanteak ez nahasteko, baita horien ordean c eta z ez ahoskatzea. Ariketei dagokienez, aurreko kontsonanteen ordenak berdina jarraitzen du: lehenengo kontsonante bakoitza lantzen du, gero biak elkarrekin eta ondoren entzumena lantzen du. Azkenik, c eta z-rekin ez nahasteko ariketak daude.

Щ da lantzen den hurrengo kontsonantea, 127. orrialdetik aurrera 9. ikasgaiari. Lehenengo nola ahoskatzen den azaltzen du eta palatalizazioa ondo egiteko iradokizunak ematen ditu, esate baterako mingainaren kokapena eta aire fluxuaren norabidea. Lehenengo ariketa entzun eta errepikatzea da; bigarren eta hirugarren ariketan щ eta ш-ren arteko desberdintasuna lantzen da, gure zailtasunen taularen arabera baliagarria izango zaiguna. Ч kontsonantea 10. ikasgaiari lantzen da, 137. orrialdean. Kontsonante hau ahoskatzeko daukagun zailtasunik handiena biguntasuna da. Oklusiboa izatea ez da arazo bat, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere kontsonante afrikatu oklusiboak dauzkagulako, zailtasun nagusia biguntasuna da, beraz hasieran ematen duten azalpena ez zaigu guztiz erabilgarria izango, bakarrik azken bi esaldiak, palatalizatua dela esaten baitu. Atal honetan hiru ariketa daude, lehenengoa entzun eta errepikatzea, eta beste biak /tʃ/ eta /tʃ/ bereiztekoak.

Azkenik, 11. ikasgaiaren  $\text{ц}$  kontsonantea lantzen da. Euskaraz  $\text{tz} / \widehat{\text{ts}} /$  ahoskatzen duten ikasleentzat ez da bereziki zaila, baina badaude  $\text{tz} / \widehat{\text{tʃ}} /$  ahoskatzen duten ikasleak, baita euskaraz ez dakitenak ere. Kasu horietan, baliagarriak izango dira bai azalpenak eta baita ariketak ere. Bestalde,  $/\text{tʃ}/$  soinutik oso gertu dagoenez, komeni da bi kontsonanteak ondo bereizteko ariketak egitea, batez ere hitzaren amaieran, kontsonantea biguna edo gogorra den adierazten digun bokalik ez baita egongo. Hortaz, ikasgai honetako ariketa guztiak baliagarri izango zaizkigu.

## УПРАЖНЕНИЕ 2

Слушайте и повторяйте. Следите за произношением звуков [ц] и [т].  
*Escuche y repita. Preste atención a la pronunciación de los sonidos [ʧ] y [t].*

цех – тех	ра́нец – ра́нить
цирк – тир	молоде́ц – молодéть
це́ны – те́мы	оте́ц – отве́ть
сце́ны – стéны	на сце́не – на стéне

ра́нец Ты́ны, цве́ты те́ти, оте́ц Вале́нти́на, телефо́н отца́, костю́м отца́  
идти в больни́цу, пойти́ в цирк, оста́вить цве́ты в ко́мнате  
оста́вить ра́нец на у́лице, чита́ть це́лый день

Irudia 21:  $\widehat{\text{ts}}$  eta  $\widehat{\text{tʃ}}$ -ren ahoskera lantzeko ariketak (Korotkova & Petrovskaya, 2017, 157. or.)


Laburbilduz, eskuliburu honetan baliagarriak izango zaizkigun alderdi asko daude. Alde batetik ikasgai bakoitzaren hasieran ematen dituzten azalpen teorikoak: laburrak eta zehatzak dira, eta oso ondo azaltzen dute nola ahoskatu behar den kontsonante bakoitza eta ahoskatzerako zer izan behar dugun kontuan. Bestetik, ariketak oso ondo antolatuta daude, lehenengo lantzen ari diren kontsonantea edo kontsonanteak lantzen dituelako (bi izanez gero, banan-banan), eta gero zailtasunak sor ditzaketan konbinaketak edo nahasten diren kontsonanteak elkarrekin lantzen ditu. Horri esker ikasleak poliki-poliki kontsonante bakoitzaren ahoskera bereganatuko du, bai hitz eginez baita entzunez ere.

### 3.2.2. Звуки. Ритмика. Интонация


*Звуки. Ритмика. Интонация* eskuliburua RKI ikasleei bideratuta dago, hau da, errusiera ama hizkuntza ez duten ikasleei. Bertan, soinu bakoitza ikasgai batean landuko da.



Hizki guztiak berdin lantzen dituzte, lehenengo lantzen ari diren kontsonantea + bokal gogor batez osatutako silabak entzun eta errepikatzeko ariketak daude; gero, beste kontsonante bat gehitzen diote silaba horri eta hitz luzexeago batzuk lantzen hasten dira; ondoren, kontsonantea bokal bigunekin lantzen da, palatalizazioa egiten ikasteko, jarraian testuak entzuteko ariketak daude eta bertan kontsonantea biguna edo gogorra den adierazi behar da. Orrialde hauetan lantzen da kontsonante bakoitza: 45.orrialdean c; 50.orrialdean з; 78.orrialdean ш, ж eta щ; 90.orrialdean ч eta ц.




Irudia 22: Ц lantzeko ariketa (Odincova, 2004, 94. or.)




Irudia 23: Ш eta щ lantzeko ariketa (Odincova, 2004, 87. or.)

Gainera, kontsonante ahostun eta ahoskabeak desberdintzeko ariketak daude. 105. orrialdean kontsonante gogorrak eta bigunak lantzen dituzte, eta 106. orrialdean guretzat interesgarria den ariketa bat dago ш, ж, ч, щ eta ц lantzen baititu:



Irudia 24: ш, ж, ч', ш, ц lantzeko ariketa (Odincova, 2004, 106. or.)

Horren ondoren kontsonante ahostun eta ahoskabeak lantzen dira. Ez dute kontsonante bakoitzeko ariketa bat egin, baizik eta denak elkarrekin lantzen dira ariketa desberdinetan.



Irudia 25: Kontsonante ahostunak eta ahoskabeak lantzeko ariketa (Odincova, 2004, 109. or.)

Eskuliburu honetan, 128. orrialdetik aurrera han zuzen, kontsonante konbinaketen ahoskera lantzen da. Taularen ezkerreko zutabeen kontsonante konbinaketa eta horrek sortzen duen soinua agertzen da, eta eskuineko zutabeen adibideak daude.

СШ ЗШ	$\searrow$ $\swarrow$	[ш]	Расши́тый, расши́рил, возо́рший, с ша́пкой; без ша́пки, без шу́ма;
СЧ ЗЧ	$\searrow$ $\swarrow$	[ш']	подпи́счик, разно́счик; сча́стье, счастли́вый, счита́ть, счёт, счетово́д; исче́знуть; рассказчик, прика́зчик, грузо́чик;
СЧ	—	[ш'ч']	исче́ркал, исче́рпал, исче́слил, расче́ртил, расчи́стил, расче́сал;

(на стыке корня и суффикса -ЧИК, на стыке приставки и корня, когда приставка не выделяется достаточно ярко)

(на стыке ярко выделяемой приставки и корня)

128

Irudia 26: Kontsonante-konbinaketen ahoskera (Odicova 2004, 128. or.)

Laburbilduz, eskuliburu hau oso baliagarria da kontsonanteen ahoskeraren automatizaziorako, asko lantzen baitu kontsonante bakoitza, bai silabaka, baita hitz luzeagoetan ere. Munduko RKI ikasle guztientzat bideratuta dagoenez, guri balioko ez zaizkigun ariketa batzuk daude, eta guretzat beharrezkoak diren beste batzuk falta izango dira. Eskuliburuaren amaieran fonetika errusiarra ingelesarekin konparatzen du, beraz, pentsa genezake batez ere RKI ikasleak izan dituztela erreferentzia puntu gisa. Hala ere, ikasle taldearen arabera baliozkoak izan daitezke bertan agertzen diren azalpenak.


### 3.2.3. Фонетические игры и упражнения

*Фонетические игры и упражнения* eskuliburua jokoak eta ariketa fonetikoak baliatzen ditu kontsonanteen ahoskera automatizatzeko. Hasieran diotenaren arabera, material fonetikoak ikasleen ama hizkuntzak sortzen duen interferentzia lexiko-fonetikoa kontuan hartzen du, eta errusieraren sistema fonetikoan oinarritzen da.

Ariketa edo jokoekin hasi baino lehen errusieraren alfabetoaren taula bat dago, eta bertan hizki bakoitzaren izena eta soinua daude. Hurrengo orrialdean jada kontsonante ahostun eta ahoskabeak aurkezten ditu. Erabiltzen duten irudia oso bisuala da, piramidearen oinarrian beti ahostun eta beti ahoskabeak diren kontsonanteak daude, eta piramidearen alboetan bikoteka antolatuta daude, alde batean bikotearen kontsonante ahostuna eta bestean ahoskabea:

**ЗВОНКИЕ И ГЛУХИЕ СОГЛАСНЫЕ**

Voiced and voiceless consonants



Irudia 27: Kontsonante ahostun eta ahoskabeen piramidea (Milovanova, 2000, 16. or.)

Irudi horren azpian beti gogorak eta beti bigunak diren kontsonanteak adierazi dituzte.

<b>Ж</b>	<b>Ш</b>	<b>Ц</b>	— всегда твердые ( <i>always hard</i> )
<b>Ч</b>	<b>Щ</b>	<b>Й</b>	— всегда мягкие ( <i>always soft</i> )

Irudia 28: Kontsonante gogorak eta bigunak (Milovanova, 2000, 16. or.)

Nahiz eta hasierako azalpen hau ematen duten, hizki bakoitza lantzerakoan ezaugarri horiek behin eta berriro agertuko dira, eta bai azalpen eta baita ariketa eta jokoetan ere izango dituzte kontuan.

Ж eta ш 90. orrialdean lantzen dituzte. Orrialdearen goialdean ж kontsonantea ш noiz ahoskatzen den adierazten dute, horregatik, adibideetan ж letra lodiz jarri dute ш bezala ahoskatu behar denean.

**Т а б л и ц а «Ж—Ш»**

[Ж] → [Ш]

1. At the end of a word.  
2. Before voiceless consonants.

кóш-ки  
крóш-ки  
плóш-ки  
ка-лóш-ки  
го-рóш-ки

уш-ки  
вол-нóш-ки  
меш-кí  
верш-кí  
ко-реш-кí

**Скороговорка**

У крóшки матрёшки  
Пропáли серёжки.  
Серёжка серёжки  
Нашёл на дорóжке.

**дорóжка** — *walk*  
**серёжки** — *earring*  
**Серёжка** — *name (m.)*  
**пропáть** — *be lost*  
найтí — *to find*

лóж-ки  
рóж-ки  
нóж-ки  
са-пóж-ки  
до-рóж-ки

крóж-ки  
по-дрóж-ки  
пи-рож-кí  
снеж-кí  
прыж-кí

**З а д а н и я:**


1. Прочитайте, следите за произношением [Ж].
2. Прочитайте скороговорку.

наш душ куш марш шалáш карандáш ералáш мальш	[ш] нож муж уж гарáж этаж пляж массáж Парíж	ножи мужи ужи гаражи этажи пляжи массáжи в Парíже
---	---	--

Irudia 29: ж eta ш (Milovanova, 2000, 90. or.)

Hurrengo orrialdean з eta с lantzen dira. Aurreko hizkiekin bezala, lehenengo з ahoskabe ahoskatzen denean adierazten da, hau da, noiz ahoskatzen den с; eta berriro ere letra lodiz adierazten dute hori adibideetan.


99-110 orrialdeetan ж, ш eta ц lantzen dira. Orrialde horietan ariketa eta jokoak daude letra horien gogortasuna lantzeko. Lehenengo letra horien ostean bokalak nola ahoskatu behar diren inguruko azalpen txiki bat ematen du. Ariketa eta joko asko daude, beraz kontsonanteen aspektu hau ondo bereganatzeko baliagarriak dira. Jokoen ostean kontsonante hauek beste kontsonante batzuekin batera doazenean sortzen diren soinuen inguruko taula batzuk daude.



Irudia 30: ж-ren ahoskera (Milovanova, 2000) 103. or.

Jarraian ч eta щ lantzen dira. Aurrekoan bezala, hasieran kontsonante horien ostean bokalak nola ahoskatu behar diren inguruko azalpentxo bat ematen du, eta jarraian hori lantzeko eta barneratzeko ariketa batzuk daude.

### Таблица «СА—ЧА—ЩА»



Irudia 31: са, ча, ща-ren ahoskera (Milovanova, 2000) 111. or.

Aurreko kontsonanteekin bezala, kontsonanteen konbinazioak lantzen dira, kasu honetan щ konbinatzerakoan kontsonantea luzatzen da, eta konbinazio hori duten hitzen zerrenda bat dago soinua praktikatzeko.

Laburbilduz, eskuliburu honetan oso sakon lantzen dira soinua: lehendabizi, atal bakoitzeko hizkia lantzen da; bigarrenik, hizki horrek izan ditzaken aldaketak, adibidez, noiz pasatzen den ahostun izatetik ahoskabe izatera; hirugarrenik, hizki horrek beste hizkiengan duen eragina lantzen da; eta azkenik kontsonante konbinaketen ahoskera. Eskuliburua aztertzerakoan topatu dudana arazo bakarrik ariketen azalpen falta izan da.

Ariketa asko daude, eta hori oso aspektu positiboa da, baina batzuetan ariketa edo jokoan azalpenen falta somatu da.

	<b>CURSO DE FONÉTICA Y ENTONACIÓN RUSA PARA HISPANO-HABLANTES</b>	<b>ЗВУКИ. РИТМИКА. ИНТОНАЦИЯ</b>	<b>ФОНЕТИЧЕСКИЕ ИГРЫ И УПРАЖНЕНИЯ</b>
Alfabetoa + ahoskera	X	✓	✓
/tʃ/ afrikatu bifokala bigun ahoskatu behar dela, eta ez gogor	X	✓	X (/tʃ/-ren ahoskera lantzen da)
/ʃ/ eta /ʃː/ desberdindu behar direla eta ez direla biak /ʃː/ beala ahoskatu behar	✓	✓	✓
/ts/ fonema gogor ahoskatu behar da eta da /tʃ/-rekin nahastu behar	X	✓	X (/ts/-ren ahoskera lantzen da)
/ʃ/ eta /ʒ/ zuzen ahoskatu behar dira eta ez /s/ bezala	✓	X	X
/ʃ/ eta /ʒ/ hitzaren amaieran	X	✓ (kokapen guztietan)	✓

Frikatibo desberdinen konbinazioa	X	X	X
Sibilante likidoa	X	X	X

Taula 9: Eskuliburu espezializatuak


### 3.3. Interneteko baliabideak

Aztertuko dugun azken iturria Internet izango da. Interneten baliabide zenbatezinak daude, horien artean eskuliburuak, gramatika eta fonetika azaltzen dituzten web orrialdeak, bideoak, audioak, etab. Atal honetan, ikus-entzunezko edukietara mugatuko naiz. Horren arrazoia honako hau da: azken urteotan, COVID-19aren ondorioz, bai irakasle bai ikasleok maskara jantzita eraman behar izan dugu unibertsitatean, era beraz, azalpenak ematea eta ulertzea zailagoa bilakatu da, eta are gehiago fonetikaren kasuan, ahoaren eta mingainaren kokapena nolakoa izan behar den azaltzea oso zaila baita. Aurreko urtean, adibidez, bi asteetan behin fonetika lantzen genuen, eta irakasleak azalpenak ematen zituen bideoen laguntzarekin.

Bestalde, bideo hauen beste alderdi positibo bat da ikasleok etxean nahi beste aldiz ikus ditzakegula hizki baten ahoskera ahaztuz gero, edota praktikatu nahi izanez gero.


Hona hemen bideoen estekak eta azalpenak:

Aztertuko dugun lehenengo bideoan ж nola ahoskatzen den azaltzen du. Lehenengo argazkian mingainaren kokapena erakusten du; bigarrenean hortzena; eta, azkenean ezpainen kokapena azaldu eta soinua egiten du.




Irudia 32: ж-ren ahoskera (Orlova 2013)





Irudia 33: ж-ren ahoskera (Orlova 2013)



Irudia 34: ж-ren ahoskera (Orlova 2013)

Bideo hauek oso lagungarriak dira oso argi ikusten delako nolakoa izan behar den ahoaren, mingainaren eta hortzen kokapena.

Aztertuko dugun beste bideo honetan ш eta с-ren arteko desberdintasuna irakasten digute. Bideoko umeak ez daki ш nola ahoskatu, eta saiatzen den bakoitzean с ahoskatzen du. Emakumeak с ahoskatzetik ш ahoskatzera laguntzen dio. Bideo hau guretzat lagungarria da askotan, nahiz eta modu independentean ш ahoskatzeko gai izan, guretzat soinua ez denez naturala, irakurtzean edo hitz egitean ш eta ж ahoskatu beharrean с ahoskatzen dugulako. Beraz ariketa hauek baliagarriak izan daitezke ahoskeraren automatizaziorako.



Irudia 35: c ahoskatzeko kokapena (Vasilieva 2020)



Irudia 36: ш ahoskatzeko kokapena (Vasilieva 2020)

#### 4. PROPOSAMENA


Atal honetan, behin eskuliburuak aztertu ditugula, RKI ikasleek ш, ж, щ, с, з, ч eta ц-ren ahoskera lantzeko irakaskuntza-eredu bat proposatuko dugu, eskuliburuetan ikusitakoaren arabera.<sup>4</sup>

Fonetika, normalean, ez da oso sakon irakasten eta aspektu batzuk salbu, ia dena lehenengo egunetan ikasten da ikaslea irakurtzeko gai izan dadin. Ahoskera ikasteko ez da zertan gramatika maila zehatz bat izan behar, beraz proposamen hau edozein maila duten ikasleentzat balio behako luke, hala ere, hasiera-hasieratik ondo ahoskatzen ikastea errazagoa da jada okerra den ahoskera bereganatu baino. Horregatik, proposamen hau errusiera ikasten hasi berri diren ikasleentzat egokia dela deritzogu.

Beraz, zailtasunak kontuan hartuta proposamenarekin hasiko gara.

Lehendabizi, komeni da ikasleek alfabeto guztia jakitea, eta hortik ezaugarri zehatzagoetara abiatu. Behin oinarri hori dutela, kontsonante ahostun eta ahoskabeak, eta kontsonante gogorak eta bigunak azalduko dugu, eta horretarako *Фонетические игры и упражнения* eskuliburuko 17. orrialdeko irudiak erabili ditzakegu:

#### ЗВОНКИЕ И ГЛУХИЕ СОГЛАСНЫЕ Voiced and voiceless consonants



Irudia 37: Kontsonante ahostun eta ahoskabeak (Milovanova, 2000, 17. or.)

<sup>4</sup> Nahiz eta materialak hizkuntza desberdinetan egon, azalpenak euskaraz/gaztelaniaz (taldearen arabera) eman.

before а, э, о, у, ы, ъ – consonants are hard	
before я, е, ё, ю, и, ъ – consonants are soft	
Ж Ш Ц	– всегда твердые ( <i>always hard</i> )
Ч Щ Ъ	– всегда мягкие ( <i>always soft</i> )

Irudia 38: Kontsonante gogorak eta bigunak (Milovanova, 2000, 17. or.)

1. Las consonantes ж, ч, ш, щ se llaman sibilantes y se dividen en:

- Duras: ж, ш. Tras ellas: *и* se pronuncia como *ы*: *жил*  
*ё* se pronuncia como *о*: *шёлк*  
*ю* se pronuncia como *у*: *жюри*  
*е* se pronuncia como *э*: *шесть*
- Blandas: ч, щ. Tras ellas: *а* se pronuncia como *я*: *чаща*  
*у* se pronuncia como *ю*: *чудо*  
*о* se pronuncia como *ё*: *чёрно*


Irudia 39: Kontsonante bigunak eta gogorak (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 27. or.)

Behin ikasleek hori bereganatu dutela gure kontsonanteak lantzeraz pasatuko gara. Lehenengo kontsonante bakoitza landuko dugu, aurretik azaldutako ahostuntasuna, ahoskabetasuna, gogortasuna eta biguntasuna kontuan hartuta. Lehenengo ч landuko dugu. Kontsonante honen zailtasun nagusia biguntasuna da. Ahoskeraren inguruko azalpena emateko *Curso de fonética y entonación rusa para hispanohablantes* erabili, azalpen zehatzak eta jarraitzeko errazak ematen baititu. Hizki bakoitzaren ahoskera azaldu eta gero ariketa bat egin.

1. La consonante [ч'] es una consonante africada. A la hora de pronunciar el sonido [ч'], es necesario asegurarse de que se pronuncia con una buena oclusión. Para una correcta articulación hay que prestar atención a la posición de la lengua y al punto de oclusión (la parte delantera y la punta de la lengua se levantan hacia arriba y se pegan a los alveolos). El elemento oclusivo de la africada [ч'] se asemeja al del sonido [т']. Bajo la presión de la corriente de aire, la oclusión se debilita y se convierte en una estrecha apertura. Los labios sobresalen un poco hacia adelante; el sonido resultante se parece al sonido palatalizado [ш']. La consonante [ч'] siempre es palatalizada. La posición más favorable para su pronunciación es delante de [a]: *час, чай*.

Irudia 40: ч-ren ahoskeraren azalpena (Korotkova & Petrovskaya, 2017, 139. or.)

Kontsonantea behar bezain bigun ahoskatzeko ahoskera behin eta berriro praktikatu behar da, horretarako, entzun eta errepikatzeko ariketak egin daitezke. Odincovaren eskuliburuan asko lantzen da hizki honen ahoskera:




Irudia 41: ч lantzeko ariketak (Odincova, 2011, 90. or.)

Landuko dugun hurrengo kontsonantea ц da, /ts/-k sortzen digun zailtasun nagusia /tʃ/-rekin nahastea eta bigun ahoskatzea denez, ahoskera azaldu eta gero bi soinuak bereizteko ariketa bat komeni litzateke:

1. La consonante [ц] es africada. Al pronunciar el sonido [ц] hay que tener en cuenta que en la articulación de [ц] se presiona la parte delantera de la lengua contra los alveolos y que la punta de la lengua baja hasta los dientes inferiores. Así se produce un sonido parecido a [т]. Bajo la presión de la corriente de aire se forma un sonido parecido a [с]. La descripción articulatoria de este sonido está en función del punto de oclusión y la posición de la punta de la lengua. El sonido [т] se puede utilizar como ayuda, si lo pronunciamos delante de [ц]: *отцы, молодцы*. La consonante [ц] siempre es dura. Es importante evitar confundir las consonantes [ц] y [т']. Si esto ocurre, hay que recomendar a los estudiantes pronunciar la [т'] con una oclusión débil, y la [ц] con una oclusión más fuerte.

Irudia 42: ц-ren ahoskeraren azalpena (Korotkova & Petrovskaya, 2017, 155. or.)



Irudia 43: ц eta т lantzeko ariketa (Odincova, 2011, 96. or.)

### УПРАЖНЕНИЕ 3

Слушайте слова. В каких словах вы слышите звук [ц], в каких – звук [т']? Пишите только номер слова. Проверьте по ключу № 38.


*Escuche las palabras. ¿En qué palabras escucha el sonido [ц], en cuáles el sonido [m']? Escriba sólo el número de la palabra. Compruebe en la solución N° 38.*

[ц] – ...

[т'] – ...

Irudia 44: ц eta т lantzeko ariketa (Korotkova & Petrovskaya, 2017, 158. or.)

Jarraian 3 landuko dugu, eta kontsonante honekin dugun zailtasun nagusia bere ahostuntasuna da, beraz, entzun eta errepikatzeko ariketak egin ditzakegu:



Irudia 45: 3 lantzeko ariketa (Odicova, 2011, 50. or.)

Horren ostean c landuko dugu. Kontsonante honekin bi zailtasun nagusi dauzkagu: ш eta ж-ren ordeaz erabiltzen dugula eta sibilante likidua ahoskatzeko trabak ditugula.

Sibilante likidua lantzeko ez dago ariketarik, soilik azalpen txikitxo bat dago aztertutako liburu guztietako batean, beraz taula hauetako hitzak ahoskatzea proposatzen dugu ariketa gisa:

<i>стать</i>	<i>статика</i>	<i>статус</i>
<i>сна</i>	<i>справа</i>	<i>спикер</i>
<i>сказать</i>	<i>скелет</i>	<i>сколько</i>
<i>снабдить</i>	<i>снова</i>	<i>снег</i>
<i>слот</i>	<i>слева</i>	<i>слушать</i>

Taula 10: sibilante likidua lantzeko ariketa

Ж eta ш kontsonanteek bi zailtasun dituzte komunean: hitzaren amaieran ahoskatzeko zailak dira; bestalde, /s/ ahoskatzen dugu /ʃ/ eta /z/ ahoskatu beharrean. Orduan, biak modu berean landuko ditugu: lehenengo bakoitza bere kabuz landuko dugu, eta ondoren, arazoak konpontzen lagunduko diguten ariketak egingo ditugu:

Ahoskera lantzeko Oľia Orlovaren (2013) bideoa erabili dezakegu<sup>5</sup>. Horren ondoren zailtasunak lantzen hasiko gara:

<sup>5</sup> Interneteko baliabideen atalean aipatu dugun bideoa.

наш душ куш марш шалáш карандаш ералáш малыш	[ш] нож муж уж гараж этаж пляж массаж Париж	ножи мужи ужи гаражи этажи пляжи массажи в Париже
---	---	--

Irudia 46: ш eta ж-ren amaierako posizioa lantzeko ariketa (Milovanova, 2000, 90. or.)

Bigarren zailtasuna lantzeko Alëna Vasilievaren (2020) bideoa (2.22-2.48 min) eta *Curso completo de lengua rusa* liburuko honako ariketa hau erabiliko ditugu:

наш	шрам	ШИТ	пошёл	} ш-с
нас	срам	сыт	посол	

Irudia 47: ш eta с desberdintzeko ariketa (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 56. or.)

сало	сук	суть	} с-ж
жало	жук	жуть	

Irudia 48: ж eta с desberdintzeko ariketa (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 57. or.)

Щ-k duen beste ohiko akats bat bigun ahoskatzea da, щ bezala. Bi kontsonante hauek desberdintzeko hainbat ariketa daude, hona hemen erabili daitezkeen adibide batzuk:

[щ'] - [ш]

а - ща	ща - ша
о - що	щё - шо
у - щу	щу - шу
е - ще	ще - ше
и - щи	щи - ши

Irudia 49: щ eta ш desberdintzeko ariketa (Antonova, Naxabina, Safronova, & Tolstix, 2010, 48. or.)



128 Слушайте и повторяйте. Следите за противопоставлением согласных [ш/щ'].

ши – щи – щи	шищи	щиши	
ши – ши – щи	шаща	щаша	
ши – щи – ши	шощё	щёшо	
щи – ши – ши	шущу	щущу	
щи – ши – щи	шэще	щэше	

ыш – ыщ	иш – ищ	шщи	щши
аш – ащ	яш – ящ	шща	щша
ош – ощ	ёш – ёщ	шщё	щшо
уш – ущ	юш – ющ	шщу	щщу
эш – эщ	еш – ещ	шще	щше

Шит – щит, шесть – щесть, чаша – щаша, прошу́ – щощу́, прощёние – щощёние; решётка – щётка;

плюш – щлюш, наш – щнаш, нож – щнош;

сообща́ешь, обеща́ешь, пи́шущий, шурша́щий, шушу́кающийя;

ваш счёт, ваш щит; плащ Шу́ры; прошу́ прощёнья; ищи́ наши ве́щи в шалаше́.

Irudia 50: щ eta ш desberdintzeko ariketa (Odincova, 2011, 87. or.)

УПРАЖНЕНИЕ 3

Слушайте слова. В каких словах вы слышите звук [ш], в каких – звук [щ']? Пишите только номер слова. Проверьте по ключу № 29.  
*Escuche las palabras. ¿En qué palabras escucha el sonido [u], en cuáles el sonido [u']? Escriba sólo el número de la palabra. Compruebe en la solución N° 29.*

[ш] – ...  
 [щ'] – ...

Irudia 51: щ eta ш desberdintzeko ariketa (Rússica 6: Drosdov Díez et al., 2005, 130. or.)

Azkeneko zailtasuna frikatibo desberdinak hitz berean edo gertu daudenean sortzen da. Hori lantzeko ez dago ariketarik landutako eskuliburuetan, eta beraz, sibilante likidoekin bezala, frikatibo desberdinen konbinaketa lantzeko taula bi proposatzen ditugu:

<i>сиж</i>	<i>жеш</i>	<i>жиш</i>
<i>жус</i>	<i>щии</i>	<i>зас</i>
<i>цич</i>	<i>чац</i>	<i>сич</i>

Taula 11: Frikatiboen konbinaketak lantzeko ariketa

Letren Fakultatea UPV/EHU  
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua  
2021-2022 ikasturtea  
Eslaviar Filologia (Ikasketa Klasikoak)

<i>сижу</i>	<i>женщина</i>	<i>живий</i>
<i>суржик</i>	<i>саять</i>	<i>общество</i>

Taula 12: Frikatiboen konbinaketak lantzeko ariketa

## 5. ONDORIOAK

Lan hau egin ostean ondorioztatu dezakegu, ш, ж, щ, з, с, ч eta ц-ren ahoskerak zailtasunak sortzen dituela RKI ikasleen ikasketa prozesuan errusieraren eta euskararen erregistro fonetikoaren desberdintasunaren ondorioz, eta ahoskera lantzen duten eskuliburu askok ez dituztenez RKI ikasleen ama hizkuntzaren ezaugarriak kontuan hartzen, beharrezkoak ditugun ariketak eskuliburu bakar batean topatzea lan zaila izan daiteke. Izan ere, benetan erabilgarria den eskuliburu bat lortzeko hainbat eskuliburu desberdinetako ariketak egin beharko genituzke, bai eta beste batzuk “asmatu” ere.

Eskuliburuen azterketa laburbilduz, 5 элементов, Русский язык, Ruso para hispanohablantes eta Поехали! eskuliburu orokorrak ez zaizkigu baliagarriak izango gai hau lantzeko; bestalde, Дорога в Россию eta Curso completo de lengua rusa eskuliburu orokorrak izan arren, gai hau lantzeko ariketa nahiko dituzte, eta bien artean ia zailtasun guztiak lantzen dituzte. Eskuliburu espezializatuen kasuan, Curso de fonética y entonación rusa para hispano hablantes eskuliburuak zailtasun gehienak ez ditu aipatzen, hala ere, ematen diren azalpenak oso baliagarriak dira eta kontsonante bakoitzaren ahoskera lantzeko ariketa asko ditu; beste biek (Фонетические игры и упражнения eta Звуки. Ритмика. Интонация) zailtasun gehienak lantzen dituzte.

Honekin guztiarekin ondorioztatu dezakeguna honako hau da: nahiz eta informazioa egon, material asko beharko genituzke gai hau bere osotasunean lantzeko, eta horrek asko zailtzen du lana, beraz, komeniko litzateke euskal RKI ikasleen zailtasunak kontuan izanda egindako eskuliburu bat egitea. Gainera, horrelako material bat egongo balitz irakasleentzat laguntza handia izango litzateke eta agian gehiago landuko litzateke errusieraren ahoskera ikasgeletan.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- Antonova, B. E., Naxabina, B. B., Safronova, M. V., & Tolstyx, A. A. (2010). *Doroga v Rossiju 1 (RU: Дорога в Россию 1)*. San Petersburgo: Zlatoust.
- Antonova, B. E., Naxabina, M. M., & Tolstyx, A. A. (2009). *Doroga v Rossiju 2 (RU: Дорога в Россию A2)*. San Petersburgo: Zlatoust.
- Antonova, B. E., Naxabina, M. M., & Tolstyx, A. A. (2013). *Doroga v Rossiju 3 (RU: Дорога в Россию 3)*. San Petersburgo: Zlatoust.
- Antonova, D. N. (1998). *Fonetika i intonacija: korrektilirovočni kurs dlja zarubežnyx preredavatelej (RU: Фонетика и интонация: корректировочный курс для зарубежных преподавателей)*. Moskva "Ruski yazik".
- Benítez Burraco, A. (2008). La Romanización del Alfabeto Cirílico: El Caso del Ruso y del Español. *Hermeneus. Revista de Traducción e Interpretación* , 4.
- Černixov, S. I., & Černixova, A. V. (2019). *Poexali! Russkij jazik dlja vzroslyx. Načalnyj kurs: učebnik 1.1. (RU: Поехали! Русский язык для взрослых. Начальный курс: учебник 1.1.)*. San Peterburgo: Zlatoust.
- Esmantova, T. (2009). *Russkij jazik: 5 elementov A2 (RU: Русский язык: 5 элементов A2)*. San Petersburgo: Zlatoust.
- Esmantova, T. (2011). *Russkij jazik: 5 elementov B1 (RU: Русский язык: 5 элементов B1)*. San Petersburgo: Zlatoust.
- Esmantova, T. (2008). *Russkij jazik: 5 elementov A1 (RU: Русский язык: 5 элементов A1)*. San Petersburgo: Zlatoust.
- Etxebarria Ayesta, J. M. (1991). *Euskal Fonetika eta Fonologia*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Europako Kontseilua. (2001). *Common European Framework of Reference of Languages: Learning, teaching, assessment*. Estrasburgo: Cambridge University Press.
- Gorbatkina, M., Mercader, C., Nogueira, V., & Oganissian, M. (d.g.). *Ruso para hispanohablantes*. Herder.
- Klimova, B. H., & Bitextina, N. B. (2011). *Russkij jazik kak inostrannyj: fonetika (Ru: Русский язык как иностранный: фонетика)*. Mosku: Russkij jazik kursy.

- Korotkova, O., & Petrovskaya, N. (2017). *Curso de fonética y entonación rusa para hispanohablantes*. Bilbo: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, argitalpen zerbitzua.
- Levine, J. S. (2018). *Russian Grammar*. McGraw-Hill Education.
- Milovanova, I. S. (2000). *Fonetičeskie igry i upražnenja (RU: Фонетические игры и упражнения)*. Mosku: Flinta, Nauka.
- Odincova, I. V. (2011). *Zvuki. Ritmika. Intonacija. (RU: Звуки. Ритмика. Интонация.)*. Flinta, Nauka.
- Orlova, Julja (Орлова, Юлия) (2013ko azaroaren 10ean). *Логопед. Как произносить звук Ж*. [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=QRAX0dgdicU>
- Rússica-6: Drosdov Díez, Tatiana; Pérez Molero, Pedro; Rojlenco, Ala; Sánchez Piug, María; Statsyuk, Valeri; Usiatinskaya, Irina;. (2005). *Curso completo de lengua rusa. Niveles básico, intermedio y avanzado*. Madrid: Ediciones Hispano Eslavas.
- Vasilieva, Alëna (Васильева, Алёна) (2020ko azaroaren 4an). *Логопед. Как научить ребёнка произносить звук Ш и С*. [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=nsXFVQT7dpo>
- Yanushevskaya, I., & Bunčić, D. (2015). Russian. *Journal of the International Phonetic Association*, 45(2), 221-228. doi:10.1017/S0025100314000395